#149
DOAN

2021 · 10 · 06
WWW.AIARALDEA.EUS

AIARALDEA hemen

Aiaraldea Ekintzen Faktoriarena

Borrokak merezi du

236 EGUNEZ LUZATU DEN GREBA MUGAGABE HISTORIKOA

236 egunen erradiografia

236 egunen ondoren, amaitu da Tubacexeko langileek 129 kaleratzeren aurka abiatutako greba mugagabea. Asteartean, enpresan jarraitu nahi izan duten langile guztiek izan zuten fabrikako atea gurutzatzeko aukera. Horrela egin zuten, harrotasunez eta emozioz beteta, denbora honetan guztian ezinbestekoa izan duten batasunari eutsiz. Zazpi hilabetez luzatu den lan gatazkak eskualdeak nekez ahaztuko dituen irudiak utzi ditu. Aiaraldea Komunikabideak greba mugagabe historiko honen mugarriak bildu ditu.

Tubacexeko langileak lanera bueltatu dira, 236 egunen ostean. **Aiaraldea.eus**

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

236 egunez luzatu da Tubacexeko greba mugagabea, 7 hilabetez. Aiaraldean urte luzetan egon den lan-gatazkarik luzeena eta handiena izan da Tubacexekoa. Hilabete hauetan guztietan milaka izan dira bolo-bolo ibili diren irudiak.

Abian jartzea

Otsailaren 11n hasi zuten greba mugagabea langileek. Inork gutxik imajina zezakeen orduan etortzeke zegoena. Aiaraldeko herritarrek, ordea, argi zeukaten Tubacexekoa ez zela nolanahiko lan-gatazka izango. Lehenengo egun horietako manifestazio jendetsuak hurrengo hilabeteetan altxatuko zen olatu erraldoiaren aurrekari izan ziren.

Irudimena arma

Etapa asko igaro ditu greba mugagabeak, baina hilabete hauetan guztietan bai multinazionalak berak, baita instituzio publikoek ere ahaleginak eta beste egin dituzte greba bertan behera uzteko. Beharginek, ordea, erakundeen axolagabekeriari eta komunikabide askoren isiltasun konplizeari aurre egiteko armarik eraginkorrena aurkitu dute: irudimena. Dozenaka ekimen egin dituzte grebari oihartzuna eman eta borrokaren garra bizirik mantentzeko. Horien artean nabarmendu daitezke San Celestinen entzierroa edota dirua biltzeko ateratako egutegia.

Buzo gorriak

Otsailaren 23ak inflexio puntua ekarri zuen greba mugagabean. Buzo gorriekin jantzita, eserialdia egin zuten grebalariek zuzendaritzako kideen autobusaren zain. Ordurako tentsioa gero eta handiagoa zen Ertzaintzaren eta langileen artean, eta egun horretan egin zuen eztanda. Polizia bortizki oldartu bazen ere, ezin izan zuen langileen determinazioa hautsi. Egun horretako irudiek munduari buelta eman zioten, lan gatazkarentzako erabakigarria izango zen mediatizazioa lortuz. Ertzaintzak ere jarrera oldarkorragoa erakutsi zuen egun hartatik aurrera.

Dozenaka ekimen egin dituzte grebari oihartzuna eman eta borrokaren garra bizirik mantentzeko

Brigada mugikorra

Hain zuzen ere, Ertzaintzak greba mugagabean izan duen papera eztabaidagai izan da. Piketeak erabat militarizatu ditu Brigada Mugikorrak neurrigabeak izan diren polizia operazio zabalekin. Ertzaintzak bortizki kargatu egin du langile eta herritarren aurka, bereziki otsailaren 23an eta martxoaren 25ean Laudio eta Amurrioko

Otsaila

Otsailaren 11n abiatu zuten 150 kaleratzeen aurkako greba mugagabea Aiaraldeko Tubacexeko fabriketan

Martxoa

Otsailaren 23ko piketeak eta martxoaren 8koak ikusgarritasuna eman zioten lan gatazkari

Martxoaren 10ean akordiorik gabe bukatu zen lehenengo negoziaketa prozesua eta kaleratzeak gauzatu ziren

erreportajea

piketeeko gertakarietan, Eusko Legebiltzarraren aurrean beharginek eginiko elkarretaratzean eta ekainaren 17ko Amurrioko epaitegi aurreko protestetan.

Greba mugagabeak iraun bitartean, gutxienez, lau langile atxilotu ditu poliziak, eta 15 lagunetik gora identifikatu dituzte poliziaren jardunaren irudiak grabatzeagatik, tartean Aiaraldea Komunikabideko kazetariak ere.

Uztailaren 7an jaso zuten langileek EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren aldeko ebazpena

Pikete feministaren

Greba mugagabeko irudi gogoangarrienetariko bat martxoaren 8ko pikete feministarena izan zen. Tubacexeko emakume grebalariek eta Aiaraldeko Mugimendu Feministako kideek piketearen lehen lerroa hartu zuten, enpresan gutxiengoa izan arren, multinazionalak mahai gainean jarritako kaleratzeen gehiengoak emakumeei eragiten ziela salatzeko. Eserialdiak zuzendaritzaren autobusaren fabrikara sartzea galarazi zuen, greba mugagabean lehenengo eta azkeneko aldiz.

Langile elkartasuna

Klase kontzientziaren pizgarri ere izan da Tubacexeko beharginen lan-gatazkan. Grebak enpresa eta sektore anitzeko langileen arteko elkartasun zubiak eraiki ditu, bereziki ITP-Aero, Aernnova, Bilboko Argiak eta Petronor enpresetako langileekin, hauek ere lan-gatazka eta lanuzteetan buru-belarri egon baitira Tubacexeko grebak iraun duen bitartean. Aiaraldeko langileek ere sare estua sortu dute azken hilabetetako testuinguruak eraginda. Eskualdeko dozenaka enpresa batzordek babestu dituzte Tubacexeko grebalariak: Autoglas, Vidrala, Envases, Tubos Reunidos, JEZ... Horren adibide argiena da eskualdeko dozenaka enpresa batzordek martxoan deitutako mobilizazio eguna.

Industriatik harago, sektore publikoko edota zaintza sektoreen elkartasuna jaso dute Amurrio eta Laudioko piketeetan, baita Aiaraldeko herrietako komertzio eta ostalariena ere. Langileek antolatutako erresistentzia kutxak milaka euro jaso ditu, eta zozketa zein bestelako ekimen ugari antolatu dira dirua biltzeko.

Joan-etorriko elkartasun olatua izan da. Izan ere, Tubacexeko langileek jasotako babes berdina adierazi dute han-hemenka piztu diren lan-gatazka eta problematiketan, Artziniegako La Encina egoitzan edota Amurrioko Berriak-BM supermerkatuetan, besteak beste.

Famatuak bozgorailu

Eskualdeko herritarren babesa jasotzeaz gain, pertsonaia publiko ugariren elkartasun mezuak jaso dituzte Tubacexeko grebalariek. Amaigabea da sare sozialetan langileen alde lerrokatu diren pertsona entzutetsuen zerrenda: aktoreak, idazleak, musikariak, politikariak... Pantailetatik jauzi egin eta askok Amurrio eta Laudioko piketeetan grebalariak bisitatuta praktikara eraman dituzte elkartasun mezu horiek: Itziar Ituño aktorea, Porrotx, Oscar Matute EHBilduko diputatua edota La Excavadora taldea. Azken honek zuzeneko kontzertua eskaini zuen Amurrioko fabrikako sarreran.

Kaleratzeen baliogabetzea

Uztailaren 7an jaso zuten langileek EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren ebazpena. Epaileek kaleratzeak baliogabetu eta arrazoia eman zioten enpresa batzordeari. Hau da, baieztatu zuen Tubacexek neurri estrukturalak aplikatzeko baliatu nahi zuela egoera.

Ebazpena pozez jaso zen Laudio eta Amurrioko piketeetan, baita frustrazio puntu batekin ere, agerian geratu baitzen, 100 greba egun luze eta gogorren ostean, langileek hasieratik arrazoia zutela.

Multinazionalak, ordea, entzungor egin zion EAEko Justizia Auzitegiaren epaiari, Auzitegi Gorenean helegitea aurkeztu eta, hasiera batean, ez zien lan egiteko aukerarik eman berriz onartuak izan behar ziren langileei. Hain zuzen ere, Madrilgo Auzitegi Gorenean aurkeztutako helegiteak luzatu du lan-gatazka azken hilabeteetan. Izan ere, helegiteak eta enpresaren aldeko Madrilgo auzitegiaren ebazpen posible batek, kolokan jartzen zuen berriz onartuak izandako langileen etorkizun hurbila.

Urriaren 5ean garaile bueltatu ziren lanera; 129 kaleratzeak sahiesturik, eta etorkizunaren defentsan atzera pausorik emango ez duen eskualde oso bat atzetik

Azken segundoak

Greba mugagabearen azken egunak lasterketa baten azken segundoak bezain biziak izan dira Tubacexen. Eusko Jaurlaritzak hasiera batean multinazionalaren mesedetara moldatutako porposamena berriro aurkeztu zien bi aldeei. Enpresa Batzordearen gehiengoak alde egin zuen baina afiliazioaren berrespena falta zen. Afiliatuen batzarrek, ordea, askoz gehiengo estuagoa irudikatu zuten, eta bozketa orokor bat saihestezin bihurtu. Urriaren 4an, ordea, ELA, CCOO eta Independienteek bide eman zioten lan gatazkaren amaiera ekarriko zuen akordioari.

Sentsazio gazi-gozoarekin bueltatu ziren asteartean grebalariak lanera, baina garaile sartu ziren: 129 kaleratzeak saihestuta, eta etorkizunaren defentsan atzera pausorik emango ez duen eskualde oso bat atzetik.

Kaleratzeen baliogabetzearen ostean berriz onartuak izan behar ziren langileak asteartean bueltatu ziren lanera. **Aiaraldea.eus**

Uztailla

Uztailaren 7an EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak kaleratzeak baliogabetu zituen, baina enpresak helegitea aurkeztu zuen

Iraila

Enplegu Sailak bi aldeak elkartu zituen negoziaketa prozesu batean, baina balantza enpresaren alde okertu zuen, greba luzatuz

Urriaren 5ean lanera bueltatu ziren Tubacexeko langileak, kaleratzeak gelditzea lortu ostean

analisia

Tubacexeko grebalariek garaipen historikoa lortu dute

Tubacexeko langileak EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia ospatzen laudioko piketean, 2021eko uztailaren 7an. **Aiaraldea.eus**

Langile Batzordeko sindikatuen artean azken egunetan egondako gorabeherek desitxuratu egin dute bistakoa dena, eta, hain hurbil izanda, ikusteko gai ez garena: Tubacex enpresako greba historikoa izan dela zentzu guztietan, eta eskualdea zein Euskal Herria astindu duela. Eusko Jaurlaritzatik CONFEBASKera, hedabide publiko zein pribatuak ahaztu gabe, guztien jarduera baldintzatu dute grebalariek.

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Atzo amaitu zen Tubacexeko greba. 236 egun luze eta biziak izan dira, eta azken egunetako desadostasunek eta akordioari buruzko iritzi kontrajarriek eragin dezakete zuhaitzek basoa ikustenezuztea.Izanere,Amurrio eta Laudioko langileek burutu duten lanuzteak marka guztiak hautsi ditu eta multinazionaleko zuzendaritza menderatu du, ez bada guztiz izan, behintzat bai kaleratzeak ekiditeko haina.

Orain, hainbat grebalarik zapore gazi-gozoa dute ahoan, egia da. Berez, urtero 5 egun gehiago lan egitera behartuak egongo dira, gutxiago kobratuta soldata berdin mantenduko baita, lanaldi handiagoa izanda. Neurri ulergaitza lan karga ez dagoela errepikatzen duen konpainia batean.

Ezin ukatu enpresak saria eraman duela, baina bere garaipena huskeria baino ez da. Beste herrialdetan ehunka langile utzi dituzte kale gorrian inongo arazorik gabe, eta hemen, "etxean", atzera egin behar izan dute. Badirudi ahaztu dela enpresako zuzendaritzaren harropuzkeria, negoziatzeko gaitasun eta borondate eza eta etengabeko mehatxuak. Maiatzean behin eta berriro aipatzen zuten protestek lantegien bideragarritasuna zalantzan jartzen zutela, iradokita produkzioa beste lurralde batera eramango zutela. Beldurraren karta ez da geratu jokatu gabe gatazka horretan, eta hori guztia berriro ahoan sartu eta irentsi behar izan dute Tubacexeko agintariek, euren faltsukeria agerian utzita.

Eta hori ez da oroimen kolektibotik ezabatu den gauza bakarra. Antza, akordioaren sinadurak desagerrarazi du langileek pairatutako indarkeria poliziaren eskutik, eta hedabide publiko zein pribaturen bazterkeria, kriminalizazioa eta gerra psikologikoa, grebalarien arteko liskarrak sortzeko itxaropenarekin. Astelehenean korrika eta ukondoak emanda argazkia eta adierazpenak bilatzen zituzten hedabide berberek nekez zapaldu dute Laudio eta Amurrio eta inoiz ez diete piketeei edo grebalariei euren iritzia galdetu. Zuzendaritzaren tesien bakarrizketek ez dute etenik izan irratian, telebistan eta egunkarietan eta uztailetik aurrera, hori nahikoa ez zenez, gezurrak eta "informazio anonimoak" biderkatu ziren.

> **“Urteak igaro ahala, jendeak bere neurrian baloratuko du Tubacexeko erresistentzia eredua ”**

Gauza ez oso ezberdina esan daiteke erakunde publikoei buruz, zeintzuek ez duten apustu garbirik edo aldarrikapen irmorik adierazi langileen

alde. Alegia, enpresak SOS deia zabaldu duenean soilik sartu da Eusko Jaurlaritza burubelarri gatazkan, irtenbide bila. Baina horretara heltzeko, orduak eta orduak, egunak eta egunak, eta hilabeteak eta hilabeteak igaro dituzte grebalariek faktorien ateetan, soldadu obsesibo gisa, euren etorkizunaren zaintzaile.

Eskualde bat kapitalaren aurka

Halaber, kreditu gehiengehiena beharginena bada ere, ezin da ahaztu Aiaraldea osoa egon dela euren atzean, euren borroka babesten. Duela ez asko jendeak gogoratzen zuen Aiaraldea langileez osatutako tokia zela, Aceroseko liskarrak oroituta. Egun, errealitate hori azalean dago berriro.

Bistakoa da zenbat ikur dauden balkoietan, zenbat jendek bete dituen kaleak eta zenbatek egin dituzten ekarpen ekonomikoak edobestemotabatzuetakoakgreba luze horretan. Arrazoiak anitzak izan dira, eta guztiak txalogarriak. Ostalariek eta merkatariek ulertu dute kaleratzeek eskualdean gainbehera ekonomikoan sakonduko zutela eta politikoki kontzienteagoak zirenek CONFEBASKen ordagoari erreparatu diote. Tubacexeko kaleratzeak gauzatuz gero, dudarik gabe beste asko gertatu behar ziren EAEn, eta Tubacexeko Stalingrado txikiak kikildu ditu enpresa handiak.

Horren adibide argia da grebako lehen hilabeteetan gatazkan ari ziren enpresa handiak ugariagoak zirela. Ordea, hilabeteek aurrera egin ahala, ez dira izen berri handiak batu (bai, ordea, txikiagoak diren batzuk).

Ibilbide nekagarri horretan sektore guztiek lortu dute lan gatazkak fabriken eremua gainditzea eta gizartearen bihotzera eramatea. Zentzu horretan, merezi du aipatzea mugimendu feministaren ekarpena, Martxoaren 8an bereziki, egun horretan autobusek buelta eman behar izan baitzuten, lehen eta azkeneko aldiz.

Historiaren atal bat idatzi da

1966an Bandas de Frío Etxebarri enpresak Frankismo garaiko grebarik luzeena egin zuen. 163 egun izan ziren. Tubacexeko kopuruarekin alderatuta, ez dirudi hainbeste, baina ondorioak kontrakoa izan behar du. 163 egun zenbaki ikaragarria bada, 236 erokeria hutsa da. Meritu apur bat ere ezin zaio kendu mobilizazioari eta, ziurrenik, urteak igaro ahala, jendeak bere neurrian baloratuko du erresistentzia eredua.

Eta aurreratu dezakegu, gainera, okerrena heltzeke dagoela. Hilabete hauetan langileei egurra eman dietenek, edo ikusezin bilakatu dituztenek, oportunismoa baliatuta gogoratuko dute gertatutakoa euren dokumentaletan, filmetan, saioetan, liburuetan eta artikuluetan.

Gehitu beharra dago askoren ustez grebak ez dituela bere helburu guztiak bete, baina zerrendan ez zeuden xede askoz gehiago jarri ditu mahai gainean: langile izatearen harrotasuna, komunitatearen babesaren garrantzia, antolakuntzaren beharra (bai erresistentzia kutxa sortzeko zein mobilizazioak antolatzeko), elkartasunaren eta batasunaren balioa eta boteretsuen despotismoari aurre egiteko beharra, bitarteko guztiak baliatuta.

Atal berri bat

Amaitzeko, etorkizunari ere erreparatu behar diogu. Greba hasi zenean, gutxik egiten zuten langileen alde, arrazoi ugari medio: "Tubacexeko beharginak jadanik ez dira aspaldikoak", "grebek ez dute ezertarako balio", "multinazionalen aurka ez dago zer egiterik"... Argudio horiek guztiak erori dira. Borrokak balio du.

Urte hasieran, ez zegoen Tubacexen langile asko euren buruak erresistentetzat edo langile klaseko heroitzat zituztenik. Ez zegoen epika gogorik ezta grinarik ere, inor ez zegoen irrikan barrikadak eraiki eta erretzeko. Baina errealitateak ataka batean jarri zituen ehunka lagun eta familia eta ez zioen arazoari izkin egin.

Gaur egun, enpresaren planak gelditu dituzte eta harrotasunez sartuko dira lantegietan. Ez ahaztu martxoan kaleratuek zuten umiliazio sentimendua eta zer nolakoa den egun euren autoestimua. Bidean, eskarmentu mordoa utzi dute, baita orbainak ere, baina borroka gertutik bizi izan dutenek badakite gauzak aldatu daitezkeela, eta ikusteke dago eredu horrek emaitzak ez ote dituen emango etorkizunean.

“Tubacexeko kaleratzeak gauzatuz gero, dudarik gabe beste asko gertatu behar ziren EAEn, eta Tubacexeko Stalingrado txikiak kikildu ditu enpresa handiak”

Bistakoa da zenbat ikur dauden balkoietan, zenbat jendek bete dituen kaleak eta zenbatek egin dituzten ekarpen ekonomikoak

Piekte femnistak zuzendaritzaren autobusa fabrikara sartzea galarazi zuen martxoaren 8an, greba mugagabean aurrenekoz. **Aiaraldea.eus**

herriz herri

Urduña

Fernando Moleresen argazki erakusketa inauguratu zuten atzo Orduña Hiria Museoan

Erakusketaren aurkezpena. **Antonio Muñoz**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Fernando Moleres argazkilari urduñarraren erakusketa inauguratu zuten Orduña Hiria Museoan iragan urriaren 1ean . Lan horren bitartez, Moleresek umeen lan esplotazioari buruzko hainbat irudi jaso ditu. Halaber, eraikinak duen gainerako bilduma ikusteko aukera dago bisitetan. Irekiera ekitaldian Fernando Moleres bera eta museoko kide bat, berriki zendu dena, omendu zituzten.

Ivan Fandiñoren omenezko eskultura inauguratu dute

Herritat ugari bertaratu ziren eskulturaren inaguraziora. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

2017ko ekainaren 17an hil zen Ivan Fandiño toreadore urduñarra, zezen batek harrapatuta. Larunbatean ekitaldia antolatu zuten bere omenezko eskultura inauguratzeko.

Aurreskua eta Fandiñoren omenezko bi pasodoble jo zituen Urduñako Musika Bandak eta lore eskaintza ere egin zioten. Jendetza batu zen eguerdian ingurutan, bai hirikoa zein kanpokoa, eta Ertzaintza agertu zen publikoari segurtasun distantziak errespetatzea eskatzeko, nahiz eta antolatzaileek eurek kalea moztu zuten edukiera mugatzeko.

Inaugurazioaren ostean, hainbat urduñar geratu ziren argazkia egiteko bustoarekin batera.

Elkartasun doinuak Urduñako Herri Eskolan

Ernai Aiaraldeak elkartasun jaialdia antolatu zuen iragan larunbatean. Iramo, , Leie Meie, Zutik!, Erasoz Erantzun, Aiaraldeko Soinu Sistema eta Raperu taldeak aritu ziren eskolako patioko edukiera bete zuten 350 lagunen aurrean.

7.000 EUROKO ISUN ESKAERA

2019an, Laudion, Tubacexen jazotako 25 urteko gazte baten lan heriotza salatzeko ekimenen batengatik Gazte Antolakundeko kide bat epaitua izango da datorren azaroaren 30ean. Fiskaltzak 7.000 euroko isun eskaera ezarrio dio, fabrikako fatxada margo gorriz estaltzeagatik.

babestutako edukia

"Niri paperean irakurtzea gustatzen zait"

Dupla
Musikariak

berria
zuk badakizulako

Egin
BERRIAlaguna

herriz herri

Aiaraldea

Udako argazki lehiaketak baditu irabazleak

Guztira 88 lan jaso ditu lehiaketak eta horietako batzuek babes handia jaso eta irabaztetik gertu geratu dira beren kategorian. Kasurik adierazgarriena Gotzone Etxebarriarena izan da; "Goizeko lehen izpiekin jolasean" irudiak 286 boto izan ditu, eta "Mundua" kategorian nagusitzetik oso hurbil egon da.

HIRU IRABAZLE

Jorge Aller, Laura Castaños eta Iraide Baskaran izan dira garaileak hiru kategoria ezberdinetan: Jorge Aller "Eguzki" argazkiarekin, 296 boto "Mundua" kategorian; Iraide Baskaran "Zur eta harri" argazkiarekin, 9 boto "Aiaraldea" kategorian; eta, azkenik, Laura Castaños "Merezi dabenengatik gora kopak" argazkiarekin 210 boto, talde argazkien sailkapenean



Aiaraldea

Fitafik elkarteak ikasturtea hasiko du berehala eta izena emateko epea irekita dago oraindik

Alboka jotzen ikasteko eskolak eskaintzen dituzte. **Aiaraldea.eus.**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Fitafik elkartea ikasturte berria hastear dago eta interesdunei euskal musika tresnak menperatzeko aukera emango die aurten, COVID-19 birusaren pandemiaren beherakadak ahalbidetuta.

Gauzak horrela, alboka, trikitia eta panderoa jotzen ikastekoeskolakemangodituzte Laudion, kristalezko aretoan. Urduñan eskaintza horri gehitu behar zaio hasiberrientzako txistu eta danbolin ikastaroa, Lanbide Heziketako eraikinean, hain zuzen.

Eskolak banaka ematen dira, ikasle bakoitzarekin astean behin, eta ordutegia adosteko parada dago irakaslearekin. Urrian hasiko dira eskolak, baina izena emateko epea irekirik mantenduko du Fitafikek. Hileroko kuota 36 eurokoa da eta izena emateko fitafikeskola@gmail.com helbide elektronikora idatzi daiteke edo 606 687 247 telefono zenbakira deitu.

Tren gidarien greba berriro nabarituko da Renfen

Testua
Aitor Aspuru Saez

SEMAF tren gidarien sindikatuak grebekin jarraituko du. Langile erakundeak salatu nahi du Renfek garraio publikoa pribatizatzeko bidea abiatu duela. Urriaren 8an, 11n eta 12an lanuzteak izango dira hurrengo ordu tartean: 05:00-09:00, 14:00-16:00 eta 18:00-20:00. Printzipioz, puntako orduetan %75ean ezarri dituzte gutxieneko zerbitzuak eta %50ean besteetan.

Hala ere, joan den astean argitaratutako ordutegiak ez ziren bete, besteak beste, arazo teknikoen ondorioz.

Bisita gidatu antzeztuak egingo dituzte eskualdeko historian murgiltzeko

Aktore profesionalek girotuko dituzte bisita gidatuak. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Arabako Turismo Bulegoak antolatuta, bisita gidatu antzeztuak eskainiko dituzte berriro Artziniegan eta Laudion. Antzezle profesionalek, gida baten laguntzarekin, herriko sekretuetan sartuko dituzte buru-belarri bisitariak. Urritik abendura bitartean, hainbat asteburutan eskainiko dituzte txangoak herriko pertsonaia historikoen eskutik, Artziniega eta Laudio beste ikuspegi batetik ezagutzeko. Bisita gidatu hauek euskaraz zein gaztelaniaz eskainiko dira, eta doakoak diren arren, beharrezkoa izango da aurretik izena ematea. Izan ere, bisitari taldeak 30 lagunekoak izango dira askoz jota.

Pertsonaia historikoek herriko sekretuak argituko dizkiete bisitariei urritik abendura bitarteko igandeetan

Artziniegan urriko, azaroko eta abenduko igande guztietan eskainiko dituzte bisita antzeztuak. Ibilbidea Toñin Luengas frontoitik abiatuko da igandero, 12:00etan. Guztira ordu eta erdiko iraupena izango du bisitak.

Laudion urriaren 24an, azaroaren 21ean eta abenduaren 5ean jarri dituzte zitak, Lamuza Parkeko sarrerako zubitik abiatuta, 11:30ean. Erreserba internet bidez egin daiteke.

Aurretik ere horrelako bisita gidatuak eskaini izan dituzte Aiaraldean: Artziniegan, Amurrion, Laudion eta Ermualdeko indusketetan.

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO
Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00
www.yandioladental.com
75 urte zurekin

PADI PROGRAMA

INPLANTEAK

3D ERRADIOGRAFIAK

babestutako edukia

Aiaraldeko GIDA KOMERTZIALA

AIARALDEA GAUR

ESPAZIO DIGITAL BAT nahi duzu dirutza gastatu gabe?

ZURE WEBGUNEKO TRAFIKOA IGO nahi duzu edota **sare sozialetako JARRAITZAILEAK HANDITU** gure euskarrien bidez?

@aiaraldeagaur

3.000 jarraitzaile

4.400 jarraitzaile

Zure produktu eta zerbitzuen **ESKAPARATE DIGITAL** bat izatea gustatuko litzaizuke **aiaraldea.eus webgunean?**

Eskualdeko **WEB BISITATUENEAN** (bataz beste 5.500 bisita egunero) zure **microsite edo espazio digital** berezia eskaintzen dizugu

ESKUALDEKO GIDA DIGITAL bakarra

HAU DA BILATZEN DUZUN ESPAZIOA

aukera anitz** (papera, sare sozialak eta webgunea) **eta tarifa oso eskuragarriak

urtean 49€-tik aurrera

INFORMATU KONPROMISORIK GABE

publizitatea@aiaraldea.eus / 688 736 956

Aiara

Oletako landetan elkartuko da Aiaraldeko Gure Esku Dago, erabakitzeko eskubidearen alde

Erabakitzeko eskubidearen aldeko sinbolo bilakatu da Oleta. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Datorren urriaren 31an *Oleta Eguna* antolatuko du Aiaraldeko Gure Esku Dago-k. Erabakitzeko eskubidearen aldeko taldea hainbatetan batu da Aiarako landako dolmenaren inguruan, besteak beste 2018ko maiatzaren 6ko herri galdeketen atarian esaterako.

Oraingo honetan erabakitzeko eskubidearen defentsan indarrak biltzeko baliatuko dute eguna.

Egitaraua

Gutxika badoaz urriaren 31ko egitaraua osatzen. Aurreratu dutenaren arabera herri bazkaria egingo dute Oletan, eta txartelak aurretik egongo dira eskuragarri eskualdeko herri guztietan. Dantza plaza eta herri kirolak antolatuko dituzte, baita musika kontzertu batzuk ere.

Asier Bolibar eta Kobi txakurra Oñatin txapeldun

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Euskal Herriko 10 txakur eta Bartzelona, Mallorca eta Castellondik etorritako beste hiru txakur norgehiagokan aritu ziren Oñatiko Santa Luzia zelaian egindako Nazioarteko Artzain Txakur lehiaketaren 61. edizioan. Euskal Herrian antolatzen den artzain txakur txapelketa zaharrenetarikoa da Oñatikoa.

Asier Bolibar Olabezarreko artzainak eta Kobi txakurrak eskuratu zuten txapela, guztira 334 puntu lortuta. Artzainak eta txakurrak 169 punturekin sailkatu ziren lehenengo proban.

Fidel Alonso artzain aretarra ere aritu zen norgehiagokan, Bat txakurrarekin batera. Zazpigarren postua lortu zuen, 151 punturekin.

Aianox enpresako langileek mobilizatzeari ekin diote, lan hitzarmen hobea aldarrikatzeko

Kalera aterako dira ostegunean Aianox enpresako langileak. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aianox enpresako langileek mobilizazioei eta lanuzteei ekingo diete ostegunean. Protestak sortu dira lan hitzarmenaren negoziazioaren testuinguruan. Are gehiago, bihar hasi behar ziren, baina fabrikako zuzendaritzak bilera proposatu du negoziatzen jarraitzeko.

Izan ere, langile batzordeak eskatu dio zuzendaritzari soldata %1 igotzea 2021ean eta %1,5 2022an, edo %1ean hurrengo lau urteetan. Halaber, gaixotasun bajei lotutako zenbait eskubide mantentzea nahi dute beharginen ordezkariek.

Aianox enpresako langile batzordeak lanuzteak deitu ditu, besteak beste, soldaten %1eko igoera negoziatzea exijitzen diote zuzendaritzari

Horrez gain, beharginek salatu dute urtero 8 ordu gehiago lan egitea nahi duela enpresak, nahiz eta Aiaraldean enpresa gutxik izan lanaldia luzeagoak.

Aianoxeko zuzendaritzak ez duenez onartu proposamena, sindikatuek mobilizazioak antolatu dituzte. 2018an antzeko egoeran egon ziren negoziazioak.

herriz herri

Artziniega

Esleitu dituzte Artziniegako ur-biltegi berria eraikitzeko obrak

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak iragan astean onetsi zuen Artziniegako ur-biltegi berria eraikitzeko obren esleipena. Artziniega AEE arduratuko da lanez, eta obrek 622.592 euroko kostua izango dute. Foru Aldundiak eta Kantauriko Urkidetzak finantzatuko dituzte lanak eta, aurreikuspenen arabera, urte honetan bertan hasiko dituzte, ur-biltegi zaharra eraitsi ondoren. Udaletik jakinarazi dutenez, 2022an egongo da funtzionamenduan azpiegitura berria.

Gaur egungo ur-biltegia hausteko arriskuan dagoela ohartarazi dute: "5.000 metro kubikoko edukiera izan arren, edukieraren % 30 soilik erabiltzen baita". Hori dela eta biltegi berriak 1.600 metro kubikoko edukiera izango du, "Artziniegaren eta inguruetako herrien beharrizanetara egokiturik", udaletik jakinarazi dutenez.

Amurrio

Gurasoleku egitasmoa aurkeztu dute Amurrion

Gurasoleku egitasmoaren aurkezpena Amurrion. **Aiaraldea.eus.**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak *Gurasoleku* ekimena aurkeztu zuen irailaren 30ean Amurrion. AEK euskaltegiarekin eta Aiarako Berbalagun programarekin elkarlanean sortutako egitasmoa da, eta honetara batu dira Amurrioko Zabaleko, Mendiko Eskola, Aresketa Ikastola eta Amaurre Ikastetxea eta Tantaka eta Tipi-Tapa haurreskolak.

0-5 urte bitarteko haurrak dituzten familien baitan euskararen transmisioa bultzatzea da helburua. Hori lortzeko programak "eragile ezberdinen arteko elkarlana baliatu, sentsibilizazioa landu, marko teoriko bat azaldu eta tresna pertsonalizatuak eskainiko ditu", Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluko kideek azaldu dutenez. Gurasolekuk 2016an Lasarte-Orian abian jarritako beste egitasmo batean du oinarria. Ikasturte honetan Amurrion abiatu bada ere, datorren ikasturtean eskualdeko 8 udalerritan inplementatzea dute helburu ekimenaren sustatzaileek.

Programak hiru atal edo tresna nagusi izango ditu, familiak euskararen transmisioan modu integral batean murgiltzeko: Euskara ikasteko bidea ematen duen "Guraso euskaltegia", mintza praktika egiteko "Gurasolagun" programa eta aisialdia familian eta euskaraz gozatzeko "Gurasolagun agenda".

Orroen Jaialdia ospatu zuten larunbatean Baranbion

Krimen & kastigo taldea Baranbioko kontzertuan. **Aiaraldea.eus.**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Garrastatxuko Txosnak kontzertuak antolatu zituen atzo arratsaldean. Berez, ez zen Orroen Jaialdiaren lehen edizioa izan, baina bai pandemiaren ostean egindako lehena. Euskal Herriko eta Kataluniako taldeek jo zuten: Krimen & Kastigo, Etxando Pestes, Global Horror eta Matrak Attack, hain zuzen.

Orozko

Alaitz Aramendi preso politikoa Zaballako espetxera mugituko dute

Zaballara mugituko dute preso orozkoarra. **Aramendi Jaunarena familia.**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Oharra zabaldu zuten iragan urriaren 1ean Espetxe Erakundeek, 9 euskal preso politiko Euskal Herrira hurbilduko baitituzte. Alaitz Aramendi Jaunarena dago zerrenda horretan. Avilako presondegitik Zaballara (Araba) aldatuko dutela iragarri du Gobernuak. Orozkoarrak ia 13 urteko zigorra bete zuen Frantziako Estatuan ETAko kidea izateagatik eta kartzela espainiarretan sartu zuten aurtengo lehen egunetan, 535 urteko zigorra ezarri ziolako Auzitegi Nazionalak ekintza batean parte hartzeagatik Madrilen. Espetxe erakundeek adierazi dute Idazkaritza Nagusiak onartu duela aldaketa, Aramendik espetxe legedia onartzen duelako, indarkeriari uko egin diolako eta biktimak errespetatzen dituelako. Halaber, erakundeek zabaldu dute presoak bere zigorraren 3/4 beteko dituela 2049an.

Aiaraldea Komunikabidea harremanetan jarri da Alaitz Aramendiren familiarekin eta honek azaldu du poztekoa dela albistea. Hala ere, erantsi dute urrats gehiago eman behar direla espetxe politika malgutzeko: "Bidaien arriskua kenduko dugu, baina bestelako neurriak malgutu behar dira. Adibidez, ez dauka zentzurik 10 lagunek baino ez izatea aukera Alaitz bisitatzeko 6 hilabetean. Frantziako Estatura zerrendako lagun guztiek dute aukera".

Esan bezala, Alaitz Aramendi ez da kartzela aldaketa izango duen preso bakarra. Andoni Goikoetxea El Duesotik (Kantabria) Martutenera eramango dute, Ibai Beobide Burgosetik Basaurira, Joanes Larretxea Asturiasetik Martutenera, Unai Bilbao Darocatik (Aragoi) Zaballara, Joseba Borde Gaztelumendi El Duesotik Basaurira, Igor Portu Darocatik Iruñeara, Jesus Maria Gomez Ezkerro Asturiasetik Iruñeara eta Jon Crespo El Duesotik Basaurira.

Laudio

Laudio Ikastolaren 50. urteurrena antolatzeari ekingo diote



Laudio Ikastolako belaunaldi desberdinak elkartuko ditu egitasmoak. **Laudio Ikastola**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Araba Euskaraz jaia antolatu ostean, erronka berri bati helduko diote Laudio Ikastolako kideek. Hezkuntza zentroak 50 urte beteko ditu ikasturte honetan, eta urtemuga hori antolatzeari ekingo diote datozen asteetan.

Urriaren 23rako jarri dute lehen zita. Bilera egingo dute 10:00etatik 13:00etara, urtemugari begira osatu nahi duten ekinza programa disenatzen hasteko.

"Ikasle, ikasle ohi, guraso eta langile" orori luzatu diete bertan parte hartzeko gonbita. Hala ere, aurretik izena emateko deia zabaldu dute, "topaketa behar bezala antolatu ahal izateko". Ikastetxearen webgunean bete daiteke formularioa.

Urtemuga lantzen hasteko topaketa egingo dute urriaren 23an

Lehen erronka zehaztua dute dagoeneko: ikastolako hezkuntza komunitateko kideak izan diren pertsona guztiei ospakizunean parte hartzeko gonbidapena zabaltzea. "Izan ere, Laudio eta inguruko herrietako 2.000 familiatik gora inplikatu da Ikastolaren proiektua sustatzen 1971-2021 tartean, eta ibilbide horretan Hezkuntzako ehunka profesionalen lanak 2.500 ikasle ohi inguruko taldea hornitu du, aurten Derrigorrezko Hezkuntza amaituko duen 40. promozioarekin eta Batxilergoko 29.arekin osatuko dena".

erreportajea

Isilpeko biolentziaren bozgorailu

Otsemeak Neska* Gazte taldeko kideak. **Aiaraldea.eus**

“Entzun gaitzatela!” bozgorailua jarri du Otsemeakek Amurrioko neska* gazteen eskura, azken hilabeteetan herrian jazotako eraso matxistak salatu eta ikustarazteko.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Azken hilabetetan herrian ugaritzen ari diren eraso matxistek asaldatuta, isilpean geratutako biolentzia kasu horiek guztiak argitara ateratzeko tresna jarri du mahaigainean Otsemeak Amurrioko Neska* Gazte Taldeak. Eraso horien guztien salaketak jasotzeko galdetegia prestatu dute eta eskualdeko neska gazte guztien eskura jarri dute, isildutakoak argitara ekartzeko helburuarekin.

Galdetegi anonimoa

Otsemeaken sare sozialetan dago eskuragarri galdetegia betetzeko esteka: labur.eus/ENTZUNGAITZATELA.

Galdetegia erabat anonimoa da, ezdainolakodatu,telefonozenbaki edo helbide-elektronikorik utzi behar, eta azken hori ez da inolaz ere erregistratuta geratuko, salatzailearen anonimotasuna ahal beste babesteko.

Hainbat galderak osatzen dute salaketak biltzeko *online* inprimakia, erasoaren nolakotasuna jasotzeko: erasotzailearen adin tartea, erasotzaile kopurua, non eta noiz jazo den, erasoa dagoeneko judizializatuta dagoen edo ez... Salatzaileak berak erabaki dezake zer kontatu eta zer ez. “Galderak ez dira nahitaez erantzun beher, norberak jartzen ditu azaldu nahi duenaren mugak” adierazi dute talde feministako kideek.

Galdetegiaren bigarren atal batean erasoaren testigantza idazteko aukera dago, eta, salatzaileak horrela nahi izatekotan, testigantza hori publiko egingo luke Otsemeak taldeak, erasoa salatzeko.

Azkenik, babes eta harremanerako bideak ere zabaltzen ditu Amurrioko neska* gazte taldeak abiatutako tresnak: “Kontaktu eta harreman bat jartzen dugu salaketa egin duen pertsonaren eskura, nahi izatekotan taldeko kideokin bildu eta erasoari aurre egiteko aukerak aztertu edota testigantza modu presentzialean konpartitzeko. Bestelako laguntza ere eskaintzen dugu, hala nola arreta psikologikoa bideratzea eta instituzioek dituzten baliabide desberdinen berri ematea”.

Isilpetik kalera

Egitasmoaren helburua isilpean geratutako eraso horiek guztiak argitara ateratzea da. Horretarako, bildutako salaketa eta testigantzekin dinamika publikoa abiatuko dute, sare sozialak eta kaleko presentzia baliatuz.

Duela bi aste egin zuten publiko dinamika, eta aditzera eman zuten egun berean bi salaketa jaso zituzten dagoeneko. Orain hauek publikoki aditzera ematen hasi dira bitarteko desberdinak baliatuz. “Otsemeak taldeak bere gain hartu du isilpeko eraso hauek taldearen izenean salatzeko ardura, taldeak badituelako norbanako batek ez dituen tresnak. Azken urteetan eraso askoren jakitun izan gara, baina hauek ez dira salatuak izan, inork ez zituelako publikoki salatu nahi, horrelako zailtasunak ohikoak dira prozesu hauetan. Orain Otsemeaken izenean salatzeko aukera zabaldu dugu, bidean egon zitezkeen oztopo batzuk erditik kenduz: guk izan dugu erasoaren berri, guk ditugu datuak eta guk ematen ditugu”.

Salatzailearen ahotsa eta

bertsioa jartzen du bozgorailuak erdigunean: “Aldarrikatu nahi dugu salaketa egiten duen neska* gaztearen egia dela balio duena. Askotan epaitua izateko beldurra dago salaketa bat ez egitearen atzean. Egai hori zalantzan jarriko ez denaren ziurtasuna eman nahi dugu baliabide honekin”.

Erasoen normalizazioa

Hasieran aipatu bezala, tresna berri hau ez da ezerezetik sortzen. Izan ere, azken hilabeteetan Amurrion astebururo sortzen den jai-giroaren testuinguruan nabarmen ugaritu egin dira eraso matxistak. “Pandemiaren ondorioz, gazterian sozializatzeko eta barrenak husteko egundoko beharra sortu da. Zoritxarrez hori bideratzeko garatu diren espazioek, normalizatzen ari diren eta batere osasuntsuak ez diren harreman ereduak erreproduzitzen dituzte, oso modu nabarian gainera”.

Otsemeakeko kideek ere euren azaletan bizi izan dituzte egoera horiek guztiak, eta jai giroaz disfrutatzeko eskubidea aldarrikatu dute “Neska* gazteok gauez, jaiez eta gure herriko kaleez gozatu nahi dugu, hauek gureak direlako ere! Ez gatoz gazteriaren kriminalizazio bat egitera eta jai-giro hori salatzera. Kontrara, guk gure espazioa aldarrikatu nahi dugu bertan, guk ere gau horietaz gozatu nahi dugu baina eremu eta espazio askoz osasuntsuago batean”.

Sarea berriro ehuntzen

Ukaezina da pandemiak belaunaldien arteko haustura eragin duela, eta Otsemeakeko kideek ere hori sumatu dute. “Deskonexio eta indibidualismorako joera areagotu egin da, eta neska* gazte asko isolatuak daude. Tresna hau baliagarria izan daiteke herriko neskon arteko aliantzak berriro ere ehuntzeko”.

“Askotan epaitua izateko beldurra dago salaketa bat ez egitearen atzean. Egia hori zalantzan jarriko ez delako ziurtasuna eman nahi dugu tresna honekin”

Despolitizazio egoera orokortu honetan, ezinbestean, belaunaldi gazteek ez dute eraso bat salatzeko talde feministara joateko joera, eta are gutxiago erakundeetara jazotzekoa, prozesua judizializatzekoa edota laguntza psikologikoa eskatzekoa: “Hor eragin nahi dugu tresna berri honekin, autodefentsa feministarako aldarria lehen lerroan jarriz. Azken instantzian, eraso hauek salatuz hauen izaera estrukturala azaleratu nahi dugu, eta ondorioz, kolektiboki erantzutearen beharra azpimarratu. Gu geu antolatu behar gara, ez da inor gu salbatzera etorriko”.

Aurrera begira

Tresnaren sozializazioarekin jarraituko dute orain. Amurrioko ikastetxeetan aurkezpen tailerrak egingo dituzte, herriko ikasleekin hausnarketa bideratu eta tresna bera sakonean lantzeko.

Otsemeak Neska* Gazte Taldeko kideek argi dutena da, ez dutela bozgorailu hau tresna isolatu bezala ulertzen: “Beste dinamika batzuk jarriko ditugu abian. Beti defendatu izan dugun prebentzioan arreta jarri eta gure arteko aliantzak eta sareak eraikitzeko. Aurkeztu dugun azken egitasmo hau testuinguru bortitz eta oso konkretu bati erantzuten dion tresna da; hortik harago eragitea ere badagokigu, eta horretan jartzea lehentasuna”.

“Bizi dugun errealitatea irauli eta eraldatzeko posizionatzen gara”

Ikasturte hasierarekin batera hasi dira dinamika horiek guztiak pentsatzen eta antolatzen: “Tresna berri honen zabalpenarekin batera zenbait aurkezpen eta autodefentsa feministarako tailer eskaini nahi ditugu”.

Urriaren 16an dute jarrita hurrengo mugarria. Asanblada irekia egingo dute Amurrioko Gaztetxean.

6 urte herria iraultzen

Aurten sei urte bete ditu Amurrioko Otsemeak Neska* Gazte Taldeak. 2015ean sortu zuten, nagusiki gizonezkoez osatutako Gazte Mugimenduari buelta bat eman eta espazio ez-mistoen beharra aldarrikatzeko, eta Euskal Herrian azken urteetan hedatu egin den olatu feminista berriarekin haziz joan da Otsemeak ere.

Urte hauetan guztietan dozenaka ekimen antolatu dituzte, beti ere neska* gazteen antolakuntza ipar: tailerrak, mobilizazioak, gune kritikoen lanketa, erasoen aurkako protokoloak, muralak, akelarrea...

“Bizi dugun errealitatea irauli eta eraldatzeko posizionatzen gara, konfrontaziotik”. Oinak lokatzetan dituen eragilea da Amurrioko neska* gazteen talde feminista; hanka sartzeetatik ikasiz eta ondo egindakoetatik aurrera eginez, sei urte hauetan Amurrio goitik behera eraldatzeko gaitasuna, erreferentzia eta potentziala bildu dituena.

Kartelak jarri dituzte Amurrioko kaleetan bozgorailuaren berri emateko, eta kale presentziaren bidez zabalduko dituzte jasotako salaketak ere. **Aiaraldea.eus**

AIARALDEA GAUR

agenda

2021/10/06
2021/10/20

Zinema eskaintza bueltan

Aiaraldeko aretoetara

Udako geldialdiaren ostean bueltan da berriro ere zinema eskaintza Aiaraldeko aretoetara. Laudion eta Amurrion ikasturteko agendari helduko diote berriro aste honetan.

Edukiera

Osasun larrialdiaren egoera bertan behera geratzearekin batera, neurri murriztaile gehienak altxatu ditu Eusko Jaurlaritzak. Ondorioz, %100eko edukiera bermatuko dute Amurrio Antzokiak eta Laudioalde aretoak datozen proiekzioetan. Maskararen erabilerak, ordea, derrigorrezkoa izaten jarraituko du, espazio itxi guztietan bezala

Lau film

Datozen bi astetan lau film proiektatuko dituzte Laudioko eta Amurrioko Aretoetan.

Laudion, Laudio TOP Zinema programaren barruan *Nunca volverá a nevar* eskainiko dute urriaren 9an, eta *Jinetes de Justicia* urriaren 16an. Amurriok urteroko programazio bikoitzari eutsiko dio, pelikulak igande eta astelehen arratsaldetan eskainiz. *Chavalas* eta *Nora* filmek estreinatuko dute kartelera berria, urriaren 10 eta 11n eta urriaren 17 eta 18an hurrenez hurren.

MUSIKA

10.09 Larunbata
20:30 LAUDIO
TRIGGER
Biolontxelo kontzertua
Faktoria

10.16 Larunbata
19:00 URDUÑA
MUNDUKO MUSIKAK
Herri Eskola

10.16 Larunbata
20:00 AMURRIO
"PADDAM CON PH"
Raphael artistari egindako tributoa
Amurrio Antzokia

IKUSKIZUNAK

10.07 Osteguna
10:30 LAUDIO
BiZINEtza:
Migrazioa eta asiloari buruzko eztabaida saioa
Laudioalde Aretoa

10.09 Larunbata
20:00 AMURRIO
"YO LA PEOR DEL MUNDO"
Antzerkia
Amurrio Antzokia

10.15 Ostirala
21:00 LAUDIO
BERTSO AFARIA
Oihana Bartra eta Fredi Paia
Faktoria

HAURRENTZAKO JARDUERAK

10.07 Osteguna
18:00 ARTZINIEGA
FAMILIENTZAKO HITZALDIA
"Nola lagundu Haur eta Lehen Hezkuntzan dauden gure seme alabei etxerako lanekin euskara ez badakigu?"
Frontoia

10.13 Asteazkena
17:30 ARTZINIEGA
"CASAS DEL MUNDO"
Ipuin txikiak egitasmoaren barruan
Artziniegako liburutegia

TXANGOAK

10.17 Igandea
09:30 OROZKO
ATXULO ALTZAGORTATIK
Ibilbide gidatua
Orozkoko Museoa

10.17 Igandea
10:00 OROZKO
LABIRINTO IRISGARRIAK
Mintzaldia eta bisita Juanjo Hidalgoren eskutik
Orozkoko Museoa

BESTELAKO EKINTZAK

10.07 Osteguna
18:30 AMURRIO
UDAL ERAIKINAK HOBETZEKO HAUNSARKETA PROZESUA
Katakesi Aretoa

10.09 Larunbata
11:30 URDUÑA
TEAREN ZEREMONIA
Adingabeen Egoitza-Zentroko gazteek antolatuta
Foru Plaza

10.09 Larunbata
18:00 URDUÑA
GAUEKO MAHATS BILKETA
Udazken Gastronomiko jardunaldien barruan
Gure Ahaleginak

10.09 Larunbata
18:30 LAUDIO
ERMUALDE SAGARDOGILE
Ermualdeko historia jardunaldien barruan
Eremualde

10.10 Igandea
12:00 ARTZINIEGA
BISITA GIDATU ANTZEZTUA
Aurretik izena eman behar da
Frontoia

10.14 Osteguna
19:00 URDUÑA
KOMUNITATEAK URDUÑAN, BIZIPEN ONDAREA
Adratan elkarteak gidatuta
Alondegia

10.15 Ostirala
14:00 AIARA
ELKARTASUN BAZKARIA
Bakearen Mezularien erakundearen alde
Arcos de Quejana

10.17 Igandea
09:00 AIARA

Txoriak behatzeko irteerak

'Birding' izeneko jardueran aukera egongo da Gorobel Mendilerroko hegazti bereizgarrienak behatzeko, bai eta ingurune naturalean murgiltzeko ibilbideak egiteko ere. Jarduera hauek Urduñako Turismo Bulegotik jarriko dira martxan, eta www.ordunaturismo.com web orrian kontsultatu ahal izango dira. Derrigorrezkoa izango da ekintzak gauzatu baino lehen inskripzioa egitea.

Bertso eskolak Faktorian: bertsolaritzaren bidez balio desberdinal lantzea xede

Arabako Bertsozale Elkarteak eta Aiaraldea Ekintzen Faktoriak, elkarlanean, bertso eskolak eskualdean biziberritzeko apustua egin dute, eta eskaintza berezia jarri dute mahaigainean horretarako.

Urriaren 6an -asteazkena- emango diote hasiera gazte eta helduen bertso eskolari. Faktorian. 15 urtetik gorako gazteek hartu ahalko dute parte, 19:30etik 20:30etara. Ikastaroa urrian hasi eta ekainera arte luzatuko da.

"Urte batzuk dira bertso-eskolen transmisioa etenda dagoela gurean, eta eskoletan lantzen den bertsolaritza zaharra, ez dagoela bestelako aukerarik... Bertsolaritzaren bidez lantzen diren balioak, ahozkotasuna, hizkuntzarekiko maitasuna eta zaletasuna... Horiek guztiak berreskuratzea dugu xede" adierazi dute antolatzaileek. Haurren taldea osatzeko asmoa dute ere. Informazioa faktoria@aiaraldea.eus helbidera idatzita eskuratu daiteke.

Kartelera

LAUDIOALDE ARETOA
Nuna volverá a nevar
URRIAK 9
LARUNBATA (3 euro)
18:30

AMURRIO ANTZOKIA
Chavalas
URRIAK 10, 11
IGANDEA ETA ASTELEHENA (3,5/5 euro)
19:30

LAUDIOALDE ARETOA
Jinetes de Justicia
URRIAK 16
LARUNBATA (3 euro)
18:30

AMURRIO ANTZOKIA
Nora
URRIAK 17, 18
IGANDEA ETA ASTELEHENA (3,5/5 euro)
19:30

9:30 AMURRIO
ARROILA JAITSIERA
Euskarabide egitasmoaren barruan antolatutako multiabentura jarduera
Telefonika

10.10 Igandea
09:30 URDUÑA
BIRDING
Txoriak ikusteko ibilaldia
Lendoñobeitiko eliza

10.10 Igandea
10:00 URDUÑA
TXARLAZOREN GEREIZPEAN IBILALDIA
Foru Plaza

IPAR MARTXA
Hastapen ikastaroa
Luiaondoko pista estalia

10.17 Igandea
09:30 URDUÑA
120 KILOMETRO AEFAT-en ALDE
AEFAT elkartearen aldeko bitarteko ekonomikoak eskuratzeko ekimena
Foru Plaza

INFO +
aiaraldea.eus

Aiaraldeko gertaerak mugikorrean jaso nahi?

HARPIDETU GURE KANALETARA!

WhatsApp
Jaso Whatsappean eguneko edukiak, 688 848 152 zenbakira AIARALDEA GAUR **mezua bidalita!**

TELEGRAM
Batu Telegramera t.me/aiaraldeaeus esteka bidez!

INFO+ www.aiaraldea.eus

erreportajea

KulturLab espazioa sortu dute, proiektuaren aintzindari. **Aiaraldea.eus**

Kulturak Laudion lekua izan dezan

Kulturzaleak elkarteak une erabakigarriak bizi ditu aste hauetan. Izan ere, Arabako Foru Aldundiarekin zein Laudioko Udalarekin daude harremanetan Lamuza parkea kultura sorkuntzaren epizentroa bilakatu dadin.

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Kulturzaleak elkartearen erroak sakonak dira eta 2013an ekin zion hazteari. Urte horretan herritarren haserreak goia jo zuten Lamuza parkeari zegokionez. Musika Etxea zein Kasinoa erortzen ari ziren zatika eta, oro har, parkeko egoera tamalgarria zen. Testuinguru horretan, SOS Laudioko Lamuza Parkea plataforma agertu zen, erakundeei exijitzeko leku historikoa berritzeko eta konpontzeko.

Herri mobilizazioek, nola edo hala, hasierako helburuak bete zituztelako eta Arabako Foru Aldundiak konpromisoa hartu zuen parkeko ondarea modu duinean birgaitzeko. Edonola ere, protesta aro horrek hazi anitzak utzi zituen eta dozena bat lagunek erabaki zuten 2019an Kulturzaleak sortzea.

SOS Laudioko Lamuza Parkeko kideak zeuden horien artean, baita 2015ean bultzatutako Kulturaren Mapeoan eta Laudioko Kulturaren Batzarrean parte hartutako herritarrak ere.

Zentzu horretan, berebizikoak izan ziren Kulturkon jardunaldiak: "2018 eta 2019 artean egin ziren kultur jardunaldiak. Horietan Lamuza parkeak eta bertako eraikinek dituzten kultura-premien eta erabileren aukerak aztertu ziren, eta hortik sortu ziren Kulturzaleak elkarteak orain plan eta proiektu zehatzetan zabaldu eta islatu nahi dituen ondorioak.

Kulturkonen aipatutako ondorioak dokumentu luze batean bildu eta udaleko talde politiko guztiei aurkeztu ondoren, Kulturzaleak elkartearen helburua da lan egitea erakundeek eta kultur sareak neurri horiek ahalik eta gehien praktikan jar ditzaten".

Erakundeekin tirabirak

Kulturzaleek administrazio publikoekin elkarlanean aritzeko prestasun osoa erakutsi izanak, ordea, ez du esan nahi harreman hori guztiz harmonikoa izan denik. Alderantziz, akordioak eta desakordioak etengabeak izan direla diote kultur ekintzaileek: "Laudioko kulturaren etorkizuneko garapena sakon eta ongi planifikatuta eta komunikatuta egin behar zen, baina halamoduz eramaten ari da. Kultur eragileek behin eta berriz eskatuz, eta lan nekaezinari esker, erakundeak gaiak kultur ehunarekin kontrastatzera eta lantzera bultzatzen ari direlako zerbait egitea lortzen ari da".

Erakundeekin talkak ugariak izan badira ere, ikuspegian dute oinarria. Hori gertatzen ari da kultur planarekin: "Ematen du -oraingoz- udalak interes handiagoa duela legealdi-plan bat sortzean (4 urtera begira), kulturaren benetako plan estrategikoa sortzean baino (20 edo 25 urtera begirako ikuspegiarekin). Izan ere, Kultura Etxea bezalako eraikin enblematiko baten obrek, kultura kudeatzeko eta eztabaidatzeko foroak, edo epe luzerako plangintza estrategikoak luzaroan kultura egiteko modua baldintzatuko eta definituko dute."

Halaber, Arabako Foru Aldundiarengana jo dute Lamuza Parkea eraldatzeko: "Kulturzaleak elkarteak proposamen zehatz bat landu eta aurkeztu die kultur sareari, ordezkari politikoei eta erakundeei, Arabako Foru Aldundiak Kultura Etxerako egindako oinarrizko erreforma-proiektua hobetzeko".

Berez, taldearen aburuz ,pasarte historiko batean dago Laudio eta modu duinean erantzun beharko luke herriak: "Aukera paregabe baten aurrean gaudela uste dugu,

hamarkada askoan behin baino ez dena gertatzen, eta ezin diogula ihes egiten utzi. Laudiok pizgarriak eta aktibazioa behar ditu, eta kultur-etxe modernoa, sortzailea, irekia, kultura eta gizarte-diziplinen arteko topagune eta bateratasun ugari dituena, kultura-ehunaren akordioarekin eta parte-hartzearekin sortua, izugarria izan daiteke". Horregatik, hain zuzen, animatu nahi dituzte laudioarrak, eragile aktiboak izan daitezen prozesuan: "Informazio guztia www.laudiokultura.info webgunean kontsulta dezakezue, eta lagundu eta parte hartu nahi duten pertsona guztiak webgunean aurkituko duzuen inprimakiaren bidez harremanetan jartzera animatzen zaituztegu".

Helburu argiak

Dena den, Kulturzaleak anbizio handikoak dira eta egungo errealitatetik harago begiratzen dute. Besteak beste, euren ustez

Lamuza Parkea herriko kultur sorkuntzaren epizentro bilakatu nahi dute

eraikinen eraberritze formal hutsetik harago joan beharra dago, aintzat hartuta parkearen eko-urbanizazioa, kultura eta botanika integratzea, parkean kultura eta aisialdia sortzeko ahalik eta jarduera gehien elkartzea edo kultur azpiegitura berriak eraikitzea, benetan dauden behar guztiak eta etorkizuneko aurreikuspenak betetzeko.

Bide beretik, taldeak defendatzen du azpiegituren irekiera: "Kultur eremuko pertsonen artean espazio komun eta topagune gehiago egon daitezen lan egitea, kultura-proiektuak garatzeko baliabide eta erraztasun gehiago egon daitezen, eta kultura-kudeaketako proposamen askotarikoagoak, irekiagoak eta parte-hartzaileagoak ere egon daitezen -non ez den beharrezkoa elkarte bateko kide izatea edo ikastaro batean izena ematea jarduera sortzaileak garatzeko".

Etorkizuna orain: Kulturlab

Ikuspegi berritzaile horren adibidea abian jarri dute jadanik, gerori itxaron gabe. Hain zuzen, Kulturzaleek orain xede argia dute: "kultura garaikideei lekua egiteko indarra biltzea, diziplina berriei lekua eginez (arte plastikoak, ikusentzunezkoak, arte digitalak, arte eszeniko garaikideak) eta gazteenak ere proiektu honetan inplikatzen saiatuz".

Egitasmo hori irudikatzeko Kulturlab proiektua pentsatu zuten, baina Kultura Etxeko lanek oraindik urteak iraungo dutenez, bestelako bidea topatu zuten ideia gorpuzteko: "parkean 4 itsas edukiontzi jartzeko finantzaketa eta baimenak lortu ziren, eta horiei esker proiektua garatzen ari gara".

Jadanik iniziatibak fruituak eman ditu eta Ander Perez eta Nerea Apodakaren erakusketak egon dira, eta urrian Mederi Ferreño artista eta bitxi diseinatzaile gaztearen lanak ikusi ahal izango dira eta, nolabait, eskualdeko ikasleen, gazteen eta sortzaileen interesgunea bilakatu da.

Olana Ibiltaria

Horrez gain, Kulturzaleak elkartea kale-animazioko eta Lamuzan Kulturaren Parke bat sortzeko proposamenaren hedatzeko jarduera bat garatzen ari da, 7x10 m-ko olana bat zabaltzean datzana, elkarteak parkearen etorkizunerako dituen ideia, behar eta proposamenei buruzko infografia bat erakutsiz 2035. urte hipotetiko batean. "Denboran zeharreko bidaia da, eta amets egiteko eta agertoki berriak irudikatzeko gonbidapena" erantsi dute elkartean. Oraingoz, olana modu ibiltarian aurkezten ari dira hilabete bakoitzeko azken arratsaldeetan ere, baina datozen hilabeteetan ekimen berriak antolatuko dira proposamen hori ezagutarazteko.

Kultur Etxea eta Lamuza Parkea herriko kulturaren erdigune bilakatzeko porposamena garatu dute. **Aiaraldea.eus**

G!
Graf!k
Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
grafik.eus

KALITATEZKO PRODUKTU KORPORATIBOAK
Zure markaren komunikazio eraginkorrerako behar dituzun **kalitatezko produktuak** diseinatu eta ekoizten ditugu.

elkarrizketa

“Pelikulak, animazioak, komikiak... leku guztietatik hartzen dut zerbait, nire nahasketa propioa egiteko”

ELENE URQUIJO ESPARZA (Arrankudiaga, 1993) ILUSTRATZAILEA DA. *EL NIDO* IZENEKO UMEENTZAKO LIBURUA ARGITARATU DU ETA ENKARGUZKO LANAK ERE EGITEN DITU, BIDEO-JOKOEI BURUZKO ALDIZKARI BATERAKO, BESTEAK BESTE. BERE SORKUNTZA PROPIOEKIN UZTARZEN DITU LAN HORIEK.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Noiztik zabiltza ilustratzaile moduan lan egiten?

Betidanik marraztu dut. Arte Ederrak ikasi nituen eta Madrilera joan nintzen gero, ikasketak ilustrazioaren esparruan jarraitzera. Orduan hasi nintzen horretan lanean. Baina, horrez gain, irakaslea ere banaiz. Bi gauzak uztartzen ditut.

Zer nolako ilustrazioak egiten dituzu? Zein formatutan?

Umeentzako ipuin bat argitaratu dut, El nido izenekoa. Enkarguzko lanak ere giten ditut, enpresentzat edo argitaletxeentzat. Horrez gain, ia hilero egiten dut lan bideo-jokoei buruzko aldizkari batekin, GTM (Games Tribune Magazine) izenekoa. Bideo-jokoetan oinarritutako ilustrazioak plazaratzen ditut bertan.

Zeri buruzkoa da El nido liburua? Nola suertatu zitzaizun hori argitaratzkeo aukera?

Argitaletxea arri zen nirekin harremanetan. Idazle batek (Rocio Campos Ramirez) idatzi zuen ipuina eta nik egin nituen ilustrazioak. Negua batere gogoko ez duen neska txiki baten istorioa kontatzen du. Bizitzan gustatzen ez zaizkigun gauzei buelta nola eman ahal diegun jorratzen du liburuak.

> **“Beti esan izan didate koloreengatik sumatzen dela ilustrazio bat nirea dela”**

Beste libururik ilustratu duzu?

Orain badut beste bat esku artean, baina ezin dut gauza gehiagorik esan (barreak).

Enkarguka egiten dut lan normalean, baina nire ilustrazio propioekin ere aritzen naiz, azoketan eta antzeko tokietan saltzeko. Erretratuak ere egiten ditut.

Asko aldatzen duzu zure estiloa proiektu batetik bestera?

Askotan aldaketa handia dago, bai. Erretratuak, adibidez, askoz errealistagoak egiten ditut. Beste batzuetan, aldiz, nabariagoa da nire estiloa.

Kolore biziak eta elementu fantastikoak dira nagusi zurean, ez?

Hala da, bai. Beti gustatu zait pila bat kolorea erabiltzea eta beti esan izan didate koloreengatik sumatzen dela ilustrazio bat nirea dela. Baina azken urteetan marrazteko era aldatu dut batez ere. Lehen estilo errealistagoa neukan. Orain, ordea, irudi geomertikoak egiten ditut, exajeratuagoak.

Zertan inspiratzen zara marrazterako orduan?

Guztiok ditugu erreferente pilo.Uneoro gaude sare soziala begiratzen. Lagun ilustratzaile asko ditut, eta euren lanak ere badira inspirazio iturri. Pelikulak,

elkarrizketa

animazioak, komikiak... leku guztietatik hartzen dut zerbait, nire nahasketa propioa egiteko.

Normalean pertsonaiak asmatzen ditut eta eurentzako istorio edo egoerak irudikatzen ditut. Liburu txiki bat prestatzen ari naiz orain nire pertsonaiekin. Sare sozialetan plazaratuko dut lehenbizi eta formatu fisikoan gero.

Zirriborroak normalean nahiko azkar egiten ditut. Ideia bat bururatzen zaidanean oso azkar irudikatzen dut. Behin betiko marrazkia egitera bideratzen dut denbora gehien.

Asko aldatu da ilustrazioak kontsumitzeko era azken urteetan?

Bai, eta presio ikaragarria sortzen du horrek Instagramen eta antzeko sare sozialetan mugitzen garen artistongan. Uneoro egon behar zara ekoizten, eta gero jendeak segundu bakan batzuk eskaintzen dizkio zuk eginikoari. Badirudi sare sozialentza lanean zaudela etengabe, eta gero horrek ez du fruiturik ematen.

Prekarizatu al da sortzaileen lana?

Baietz uste dut. Orain badirudi zerbait berria egin behar duzula egunero, bestela ez zarelako existitzen.

Pandemia ere hor dago. Zer nolako eragina izan du zure sorkunza prozesuan?

Lan asko egin dut. Arrankudiagan bizita, erraz eraman dut konfinamendua. Baina egoerak txarrera egin du gero.

Zeintzuk dira zure asmoak datozen hilabeteei begira?

Baditut pare bat enkargu, baina nire sorkunza propioan zentratu nahi naiz batez ere. Iragan ikasturtean master bat egiten egon nintzen unibertsitatean eta ez nuen apenas denborarik izan marrazteko. Beraz, badut gogoa paperaren aurrean eseri eta marrazten egunak eta egunak igarotzeko.

Kolore biziak erabiltzen ditu Elene Urquijok bere ilustrazioetan. **Elene Urquijo**

kultura

ANE CUESTA MORGE (Zollo, 2000) IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOKO IKASKETAK BUKATZEN ARI DA ETA JADANIK BI FILM LABUR ZUZENDU DITU. *ASKO FALTA DA?* IZAN DA AZKENENGOA, ETA CROWFUNDIGA ABIATU DUTE PROIEKTUA HOBETZEKO.

Testua
Aitor Aspuru Saez

Nola sortu zen *Asko falta da film?* laburra egiteko ideia?

Pelikula bizipen erreal batean dago oinarritua, hortaz, hori gertatu zenetik agertu zen kontatzeko grina, baina ikasleak garenez, unibertsitateak eman zigun aitzakia hori.

Ikus-entzunezko komunikazioa ikasten ari gara eta 3. mailaren amaieran beti egiten da film laburra. Klaseko lagunak gara eta lanak egin ditugu elkarregaz. Ondorioz, erabaki genuen hori kontatu behar zela. Gainera, gure erara egin nahi genuen. Batu ginen eta nik idatzitako gidoia hautatu genuen. Bagenuen aitzakia, aukera eta gogoa soberan. *Asko falta da?* filmak salatzen du bortxaketa bat eta egiten du kasu zehatz batean oinarrituta.

***Go!azen* telebista saioko zenbait antzezle agertzen dira, nola batu dituzue proiektura?**

Prozesuaren lehenengo partea zen aktoreak bilatzea. Pertsonaiak argi genituen eta horren arabera hainbat euskal antzezle gazteren argazkiak jarri genituen mahai gainean, erabakitzeko zeintzuk bete ahal zuten ondo paper bakoitza, ematen duten irudiagatik eta abar.Horrela atera ziren *Go!azen*-eko hiru antzezle: Maria Redondo, Iholdi Beristain eta Beñat Iturbe. Ematen zigun beldur apur bat *Go!azen*-eko antzezle gehiegi agertzea, norbait agian nahastuko zelakoan, baina oso aproposak ikusten genituen pertsonaia horiek antzezteko. Lortu genuen zeharka eurekin harremanetan jartzeko modua, ezagun baten ezagunaren ezagunari mesedeak eskatuta, deiak egin genituen eta esan ziguten baietz.Agertzen dira ere Gaizka Sarasua, antzerkia ikastea Donostian, eta Unai Arana. Azken hori *Altsasu* telesaioan agertu zen eta orain Netflixeko telesaio berri batean dago lanean; *Tú no eres especial*.

Eskaintza ekonomikoa egin zenieten?

Deitu genien eta azaldu genien ikasle taldea ginela, film laburra egin nahi genuela eta hasieratik esan genuen unibertsitateak ez zigula dirurik ematen. Ikasleak izanik, ez genituen baliabideak eurei soldata ordaintzeko. Konpromiso barik eskatu genien parte hartzea, egin genuen bilera banan-banan gidoia erakusteko eta gogoko izan zutenez, aurrera egin zuten.

“Pelikulak bortxaketa bat salatzen du”



“Crowdfundingak bi txanda izango ditu. Lehengoa irailaren 29an hasi zen eta berrogei egunez luzatuko da”

Zenbat eguneko grabaketa izan zen?

Denboraz mugatuak geunden, klaseko lana zelako. Astebetea genuen grabaketa egiteko. Datak aintzat hartuta, hiru egun erabaki genituen. Lehenengo egunean hiru aktorek baino ez zuten parte hartu, eta Aretxabaletan izan zen. Beste bi egunetan antzezle guztiak zeuden eta Azpeitiako baserri batean izan ziren.

Hori da zuzendari laguntzaileak egiten duen lana, dena antolatzea ahalik eta errazena izateko. Lehenengo egunean agian sei orduz aritu ginen, eta beste bi egunetan zortzi edo hamar orduz.

Orain crowfundinga abiatuko duzue, zertarako zehazki?

Hasieratik pentsatutako aukera da. Alde batetik, guk jarritako dirua berreskuratu nahi dugu. Izan ere, ikasleak izan arren, lan egin dugu proiektuan eta nahi dugu baldintza horiek hobetu. Aktoreei eta ikusten ez diren pertsona askori ere ordaindu nahi diegu; diseinatzailea egon da kamiseta egiteko, soinu banda sortu duena...

Etorkizunera begira, ordaindu nahi diogu banatzaile bati, gure lana zabaltzeko.

“Hori da zuzendari laguntzaileak egiten duen lana, dena antolatzea ahalik eta errazena izateko”

Momentuz filma bukatu nahi dugu. Unibertsitatean aurkeztu dugu bertsio bat, baina emaitza findu nahi dugu post-produkzioaren bidez; etalonajea, soinua hobetu...

Hori borobilduta eta pozik sentitzen garenean horrekin, unibertsitateak antolatzen duen jaialdi batean parte hartzea da xedea, Huhezineman.

Gero bestelako jaialdietan mugitzea nahi dugu eta horretarako beharrezkoa da banatzailea.

Piztu Meta 2021ean parte hartu eta hautatuak izan zarete, azalduko duzu zer suposatzen duen horrek?

Beka antzekoa da, kultura proiektuak aurrera eramateko. Babeslea da Gipuzkoako Foru Aldundia eta Goteo plataformarekin akordioa dauka, crowfundingak egiteko balio duena.

Guk azaldu genuen zertan datzan proiektua, eta Metakera bidali genuen. 15 proiektu hautatzen dituzte, ohikoan gizarte arazoekin lotura dutenak.

Aukeratuen crowfundingaren bidez jasotako ekarpen bakoitza bikoizten edo hirukoizten du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Proiektu bakoitzeko 4.700 euroko muga dago. Gure kasuan,4.000 euro lortuta, 8.000 eskuratuko ditugu guztira.

Crowfundingak bi txanda izango ditu, irailaren 29an hasita berrogei egunez luzatuko da bat eta hilabeteko etenaldiaren ostean, 20 eguneko beste txanda egongo da. Hori bai, lehenengo txanda horretan gutxieneko kopurura heldu behar da, gure kasuan 3.000 euro.

Pelikula hau izan da zure lehen esperientzia zuzendari gisa?

Egin nuen beste bat unibertsitaterako. Kasu horretan Katalunian egin nuen, Seneca beka batekin egon bainintzen han. Askoz arinagoa izan zen. Astebetean grabatu eta astebetean ekoiztu nuen, presa gehiagorekin, baina beste modu batean; lagunak deitu eta eurekin aurrera egin.

Hala ere, Huhezinema jaialdian parte hartu nuen eta saria jaso nuen. Zehazki, pelikula horrek kontatzen zuen neska gazte batek plan perfektua zuela, nahiz eta onuragarria ez izan berarentzat. Gero konturatzen gara ematen zuela neskak hitz egiten zuela gauza bati buruz, baina beste bati buruz ari zela.

kirola

“Etapa berri honeta nire bertsiorik onena ematea espero dut”

ENEKO MARIGORTA (Laudio, 1992) HAMAR URTE EMAN DITU LAUDIOKO ESKUBALOI TALDEAN JOLASTEN. ORAIN CB BARAKALDOREKIN HASI DA, LEHENENGO MAILAKO ESKUBALOI TALDEA

Testua
Aitor Aspuru Saez

Lehenik eta behin, nola fitxatu zaitu Barakaldok?

CB Barakaldoko atal teknikoa Laudio BC taldearekin kontaktuan jarri zen, ezaugarri jakinak zituen jokalari baten atzetik zeuden eurekin batera aritzeko, nire ezaugarriekin bat egiten zuena hain zuzen ere. Elkarrekin kontaktuan jarri gintuzten, eta galdetu zidaten ea prest nengoen haiekin proba batzuk egiteko. Baietz esan nuen inolako zalantza izpirik gabe, eta aurre denboraldia beraiekin egin eta gero, taldearen parte izatea proposatu zidaten

1. mailan arituko zara hemendik aurrera, zer esan nahi du horrek zuretzat? Bidaiak, kategoria aldaketa...

Aldaketa oso handia kirolaren aspektu guztietan: bai alor taktikoan, bai teknikoan eta baita fisikoan ere.

Alde batetik, astean hirutan Barakaldora joan behar naiz entrenatzera, eta asteko laugarren egun bat gorde behar dut partidutarako. Hori guztia, besteak beste, Nafarroara edota Zaragozara egin beharreko bidaiak gehitu behar zaizkio. Ni, ordea, oso gogotsu nago kantxa izugarrietan jokatzeko aukera eskaintzen didatelako bidaia horiek guztiek.

Bestetik, hilabete gutxiren buruan probintzia mailan jokatzetik lehen maila nazionaleko talde batean aritzera pasatu naiz. Honaino iritsita, tamaina handiko talde nazional baten kontra jokatzea eta talde horri gola sartzea ikaragarria da. Erralitate bihurtutako ametsa da hau,pausu oso handia eman dudala pentsatzen dut pertsonalki.

Noizbait pentsatu zenuen maila horretan jokatuko zenuenik? Uste duzu asko nabarituko duzula aldaketa?

Edozein jokalarik amesten du maila handiago batean jokatzearekin. Hala eta guztiz ere ez nuen uste inoiz hain salto handia emango nuenik. Horregatik Barakaldoko proposamena jaso nuenean ez nuen inolako zalantzarik izan. Azken finean aukera hauek ez dira inolaz ere galdu behar, bizitzan behin bakarrik agertzen direlako.

Argi dago aldaketa nabarituko dudala, baina badakit eguneroko esfortzuarekin eta daukadan esperientziarekin topera gozatuko dudala, eta taldeari ahal bezain beste lagunduko diodala

Zeintzuk dira zure ezaugarriak jokalari moduan eta zein da zure postua? Zer uste duzu emango diozula taldeari?

Ezkertia naiz eskumako hegaletik jokatzen dut horregatik golak sartzeko angelurik gabe jauzian jaurti behar dut baloia. Jokalari gisa ditudan ezaugarriak kontraerasorako daukadan gaitasuna eta jaurtitzeko teknika dira. Ni jaurtitzailea naiz, zazpi metroko jaurtitzailea hain zuzen ere, penaltiak jaurtitzeaz arduratzen naiz. CB Barakaldon, ordea, konpetentzia nahikoa daukat eraso mota honetan. Ez diet beldurrik jaurtiketa zailei ezta baloi erabakigarriei ere, hori ere bada nire beste ezaugarrietako bat, eskubaloi jokalari gisa.

Nire bertsiorik onena ematea espero dut aurkezten zaidan etapa berri honetan. Ahalik eta minutu gehien jokatzea espero dut, hori seinale hona litzake. Taldeari edozertan laguntzeko prest nago, hori da eskainiko dudan gauzarik garrantzitsuena.

Pena eman dizu Laudioko taldea uzteak? Zer botako duzu faltan bereziki?

Noski pena ematen dit, 14 urte igaro ditut elastiko berdea soinean jantzita. Lagun asko, eta bizipen gehiago uzten ditut atzean.

Une honetan Laudioko eskubaloi taldeak proiektu oso polita dauka esku artean. Jokalari gazte eta indartsuak dira gure atzetik datozenak. Oso itxura ona du eraikitzen ari direnak.

Gehien faltan botako dudana lagun artean jokatzea izango da, faltan botako ditut elkarrekin egindako barre eta txantxa guztiak.

babestutako edukia

AIARALDEA EKINTZEN

FAKTORIA

www.faktoria.eus
faktoria@aiaraldea.eus
688 647 942

Urriak 9, zapatua
20:30ean
TRIGGER
[Biolontxelo kontzertu berezia hiru partaideekin: hardcorea, stonerra, flamenkoa, technoa...]

Urriak 15, barikua
21:00ean
BERTSO AFARIA
[Oihana Bartra Arenas eta Iñaki Viñasprek girotua]

Urriak 16, zapatua
20:30ean
PERU GALBETE
[Usurbildarrak taldearekin eskainiko du kontzertua. Ahotsarekin eta irudiarekin lan egiten du]

Urriak 23, zapatua
20:30ean
J MARTINA
[Baseekin jolasteko gogoz abiarazi zuten Barcena ahizpek J Martina egitasmoa, eta Javi Jorajuriarekin batera osatu zuten hirukotea]

Urriak 29, barikua
21:00ean
KAITIN ALLENDE
[Bakarrizketa umoretsua eskainiko du okondoarrak. Komedialdia Umore Jaialdiko bakarrizketa onenaren saria jaso berri du Allendek]

IKASTAROAK

Astelehenetan 19:15 - 20:15
ZUMBA EUSKARAZ
[Izaskun del Cerro urduñarrak eskainiko du ikastaroa. Musika, izerdia eta dantza astelehenero]

Martitzenetan 19:30 - 20:30
YOGA EUSKARAZ
[Yoga ere euskaraz egiteko aukera egongo da urritik aurrera]

Astean behin
BERTSO ESKOLAK
[Haur, heldu zein gazteentzako deialdi irekia. Izen-ematearen arabera osatuko dira taldeak]

Astelehenetan eta eguaztenetan 10:30 - 12:00
EUSKARA ADINEKOENTZAT
[Etxeko nagusiek euskaraz aritzeko oinarrizko ezagutzak eskuratzeko eskola arinak eskainiko dira]

HEZKUNTZA JARDUERAK

Martitzenetan
17:30 - 18:30 / 18:30 - 19:30
ZIRKU TAILERRA
[Zirkuaren mundura salto egin nahi? Etorri zure gorputzarekin jolastera, akrobaziak, oreka, malabareak, airea...]

Martitzen eta eguenetan
10:00 - 12:00
HAUR ETA FAMILIA GUNEA
[Familientzako bereziki prestatutako gunea, estalpean jolasteko eta lasai egoteko]

Urriak 10, domeka
16:30etatik 18:30ak arte
FAKTORIAN JOLASEAN
[Hilabeteko bigarren igandean. Faktorian jolas eta dinamika ezberdinak adin ezberdinetako haurrentzat]

Urriak 17, domeka
11:00 - 13:00
0-3 URTE ESPAZIO ASKEA
[Mugimendu autonomorako eta jolas librerako espazio zaindua. Profesional baten laguntzaz, helduok behatu eta taldeaz disfrutatzeko gunea]

Urriak 29, barikua
18:00 - 20:00
ARIMEN GAUA: BELDURREZKO LABIRINTOA
[12 - 16 urte bitarteko gazteei bideratutako ekintza. Faktoria beldurraren etxea bilakatuko dugu. Kandelak piztuta parte hartzaileek handik ateratzeko modua topatu beharko dute, bidean hamaika sorpresa, susto, oihu eta kalabaza!]

EKONOMATUA
Astelehenetik barikura
11:30 - 14:00 / 17:00 - 21:00
Zapatuetan
10:30 - 14:00
722 846 762
ekonomatua@aiaraldea.eus

KANTINA
Ekonomatua irekita dagoen bitartean irekita egongo da
Zapatuetan
10:30 - 14:00
722 846 762
kantina@aiaraldea.eus

+ KULTUR EMANALDIAK DAUDEN GUZTIETAN

kirola

“Gazteak gara, hori da gure balio erantsia”

UNAI SAN PEDRO CAMACHOk (Orozko, 2003) ATHLETICI BURUZKO ‘AREA ROJIBLANCA’ PROIEKTU KOMUNIKATIBOA SORTU DU BERE LAGUN IÑIGOREKIN BATERA. INSTAGRAM, YOUTUBE ETA TWITTER KONTUAK DITUZTE, ETA TWITCHEN ZUZENEKOAK EGITEARI EKIN DIOTE.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

“Area Rojiblanca” proiektua eratu duzue. Nola sortu zen proiektua garatzearen ideia?

Nik Athletic-i buruzko kontua izan dut Instagramen 2015etik, 2018an itxi zidaten arte. Ia 9.000 jarraitzaile lortu nituen, eta ez nuen amore eman nahi. Orduan kontu berri bat jarri nuen martxan, proiektuarekin jarraitzeko. Azkenean, urte honen hasieran, erabaki nuen nire proiektua serioago eta txukunagoa egitea, eta “Area Rojiblanca” izeneko kontua sortu nuen, non publikazioak garatuagoak eta idatzizko eduki gehiago egongo zen. Aurrera jarraitu nuen, eta nire laguna Iñigorekin kontaktuan jarri nintzen, partiden kronikekin laguntzeko. Izan ere, biok kazetari izan nahi dugu, Athletici buruzko artikulu laburrak idazteak lagundu egiten digu, eta ilusio handiarekin daramagu kontua.

Nahiko ondo hasi zen proiektua Instagramen: zenbait jarraitzaile izan genituen hasieratik, eta aurreko kontuekiko aurrerapena nabaria zen edukiaren aldetik. Orduan, erabaki genuen denboraldi honetarako hedabide berrietara irekitzea: Twitch, Twitter eta YouTube. Momentu honetan nahiko geldirik gaude, eta asteak daramatzagu zuzenekoak eskaini barik; San Mamesera zaleak buelatzearekin gu ere joaten hasi garelako, eta unibertsitatean ari garelako. Baina laster egongo gara bueltan Twitch-en (Twitterren eta Instagramen astero egoten dira publikazioak), eta espero dugu jendearen bultzada nabaritzea. Hala ere, oso pozik gaude proiektuak izan duen eboluzioarekin, eta izango duenarekin ere, gauzak ondo egiten ari garelako.

Zuzenekoak eskaintzen ere bazabiltzate Twitch-en. Zer ikusi dezake zuen kanalera edo zuzenekora sartzen denak?

Denboraldi honen hasieratik daramagu Twitch plataforman zuzenekoak eskaintzen. Izan ere, plataforma oso profesionala da gauza ezberdinak jorratzeko, eta gure proiektua aurrera eramateko.

Printzipioz bi zuzeneko eskaintzen ditugu astero. Lehenengoa astebururo izaten da normalean, partida-ondorengoa baita, partida bakoitza bukatu eta gero ireki ohi duguna. Bertan jokatu berri den partidaren analisia egiten dugu: hainbat puntu komentatzen ditugu gainetik, hasierako hamaikakoa komentatzen dugu, jokalari bakoitzari puntuazio indibiduala jartzen diogu, eta hurrengo partidari burzko gehigarri txikiarekin bukatzen dugu. Gainera, askotan gonbidatu baten presentziaz gozatzen dugu, eta entretenigarriak izaten dira zuzenekoak.

Bestalde, beste zuzeneko bat egin ohi dugu astero, baina maiztasun txikiagoarekin. ‘Random’ zuzenekoa deritzogu, ez baitugu izaten pentsatuta zuzenekoan jorratzeko gairik. Horregatik esaten dugu gure ikuslea ez dela zertan Athleticekoa izan beharrik, izan ere zuzeneko horretan edozein gairi buruz aritu gaitezkeelako. Baina zuzeneko horren amaieran, ‘¿Quién Quiere Ser Rojiblanco?’ jokoa burutzen dugu. Athletici buruzko 10 galderako jokoa da, eta asteroko gonbidatu batek hartzen du parte bertan. Bukaeran, gonbidatu bakoitzak lortutako puntuen arabera, sailkapen bat egiten ari gara, denboraldi amaieran lehenak saritzeko. Dagoeneko 2 aldiz egin dugu jokoa, eta oso entretenigarria izan da!

Zer eskaintzen duzue “Area Rojiblanca”-ko kideek Athletici buruzko beste hedabide batzuek eskaintzen ez dutena? Zein da zuen balio erantsia?

Egia esan, ez dugu uste Athletic-i buruzko beste hedabide batzuek eskaintzen ez duten ezer berezirik eskaintzen dugunik, baina uste dugu gauzak era ezberdin batean transmititzen ditugula. Nik (Unai), urteak daramatzat Photoshop bezalako tresnekin gauzak egiten eta “edit” mordoa sortzen, eta horrek asko lagundu dit proiektuan erabiltzen ditugun overlay-ak, Instagramera igotzen ditugun argazkiak, eta abar kalitate onean eta modu originalean proiektatzen. Ondorioz, gure streamingak nahiko ikusgarriak izan ohi dira bisualki eskaintzen ditugun baliabideei esker.

Esango genuke gure balio erantsia gazteak izatea dela. Proiektua aurrera eramateko energiaz eta gogoz beteta gaude, eta erraztasuna daukagu mundu honetan aritzeko, txikitatik ezagutu izan dugulako, eta abantaila daukagulako beste pertsona nagusiago askorekin konparatuta.

Ibai Llanosek Leo Messirekin egindako elkarrizketak zalaparta eragin zuen kirol kazetaritzaren munduan. Kirol kazetaritza aldatzen ari dela esango zenukete? Zertan? Zer nolako pisua dute Twitch eta antzeko tresnek mota horretako kazetaritzan?

Ez dugu uste Ibai Llanosek Leo Messiri egindako elkarrizketa kazetaritza denik, azkenean jokalari bat telebista programa batera joaten denean bezala da, ondo pasatzeko eta Ibairekin harreman bat finkatzeko helburuarekin izaten baita. Ibairen helburua horrelakoak diren elkarrizketak burutzean ez da kazetaritzan aritzea, benetako kazetari batek egin dezakeena egitea. Ibai Espainiako laugarren pertsona jarraituena da Twitch-en, 8 milioi jarraitzaile baino gehiagorekin, eta berak baliabide hori aprobetxatu zuen Leo Messirekin elkarrizketa egiteko eta audientzia kopuru oso altuari transmititzeko. Izan ere, Twitch bezalako plataformak asko garatu dira eta garrantzi handia daukate gaur egun. Kazetari bat honelako plataformetan aritu daiteke bere lana egiten, mugarik gabe eta denbora eta zereginak bere erara kudeatuta; bikainak dira Twitch bezalako plataformak, nahi duen orok bere proiektua izateko aukera daukalako.

TRAILA

Aiaramendi garaile Euskal Herriko Mendi Laterketen Txapelketan

Kluben kategorian gailendu zen Aiaraldeko taldea. **Aiaramendi Korrikalariak**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Emaitza oparoak lortu zituzten Aiaramendi taldeko kideek asteburuan jokatutako Euskal Herriko Mendi Lasterketen Txapelketan.

Aiaraldeko taldea kluben kategorian gailendu zen, eta Onditz Iturbek lehen postua eskuratu zuen bakarkako txapelketako emakumeen kategorian. Araitz Bila bigarren sailkatu zen eta Eztizen Duquek bosgarren postua erdietsi zuen.

Gizonezkoen kategorian, aldiz, hauek izan ziren Aiaramendikoen sailkapenak: Borja Zubizarrete 2., Javier Goitia 3., Gartzen Elejabarrieta 4., Iker Etxebarria 10., Jon Durana 13., Iñaki Isasi 14., Xabi Abasolo 18., Josu Isasi 26. eta Alfonso Manterola 36.

Junior kategorian, aldiz, Gontzal Murgioitiok lortu zuen lehen postua.

Araian izan zen proba. "Aizkorri-Aratz parke naturaletatik abiatu ziren korrikalariak eta 28 kilometroko bidea egin zuten guztira, 1.800 metroko desnibel positiboarekin", azaldu dute klubeko kideek, "egun euritsua izan zen eta dena lokaztuta zegoen".

MENDIZALETASUNA

Goizale eguna antolatu zuten larunbatean

Bazkaria egin zuten Ponatako aterpean. **Mendiko Lagunak**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Amurrioko Mendiko Lagunak Taldeak *Goizale Eguna* antolatu zuen iragan urriaren 2an. Ohikoan bezala Ponatako pagadian dagoen aterpera hurbildu ziren klubeko kideak, eta auzolana egin zuten bertan.

Gorobel mendi martxa

Pandemiaren etenaldiaren ostean datorren azaroaren 7an ospatuko dute Gorobel martxa

SASKIBALOIA

Nilofar Bayat Afganistango kirolari errefuxiatuak Amurrioko Bañueta kiroldegian debutatu zuen

Testua
Aitor Aspuru Saez

Nilofar Bayat aulkigurpilduneko Afganistango saskibaloi taldeko kapitainak debuta Bilboko Bidaideak BSR taldearekin iragan urriaren 2an Amurrioko Bañueta kiroldegian

Fundación Vital Zuzenak taldearen aurka neurti zen talde bilbotarra. Norgehiagoka Amurrioko Zaraobe Saskibaloi Taldeak antolatu zuen kirol egokitua sustatzeko helburuarekin..

Kirolariak dei publikoa zabaldu zuen talibanek bere herrialdea hartu zutenean, arriskuan ikusten baitzuen bere burua. Antonio Pampliega kazetariak laguntza deia zabaldu ondoren, Espainiar Gobernuak aukera eman zion kirolaren esparruan hobetzen jarraitzeko. Bayatek Bilboko Bidaideak kluba hautatu zuen

Bañueta kiroldegia. **Aiaraldea.eus**

elkarrizketa

“Espainiako Petanka Txapelketara joan naiz, Malloracara, Erreginaren Kopa jokatzera”

DORI ORTIZ GIL (Laudio, 1964) DUELA GUTXI HASI DA PETANKAN JOKATZEN ETA URTEBETEAN SEKULAKO ARRAKASTA LORTU DU, ESPAINIAKO ERREGINAREN KOPAN PARTE HARTU BAITU.

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Azalduko diguzu zer lortu duzun berriki?

Lortu dut Espainiako Petanka Txapelketara joatea, Erreginaren Kopara, Mallorcara, hain zuzen. Gaztela eta Leongo txapeldunak izan ginen eta sailkapena lortu genuen. Ez dugu irabazi, maila oso altua delako. Nire lehenengo partida txapeldunen kontra izan zen eta izugarri onak ziren.

Dena den, ez naiz desanimatu, txapelketara itzuli nahi baitut hurrengo urtean.

Nolakoa izan da esperientzia?

Bikaina. Errepikatzeko modukoa. Jende pilo ezagutu genuen eta Etxebarriko talde batekin egin genuen topo. Txoko guztietako jende jatorra ezagutu genuen: euskaldunak, kataluniarrak, errioxarrak...

Partida bat galdu eta euren animoak jaso ditut. Esaten zidaten jende orori gertatu zaiola hasieran. Oso ondo zaindu naute.

Ostiralean joan ginen, arratsaldean heldu ginen eta larunbatean hasi ginen jokatzen, goizeko 09:00etan. 71 pista zeuden eta bakoitzean 6 lagunek jokatzen zuten, 3 jokalariko taldeak baitziren. Gazte kategoriakoek ere jokatu zuten.

Larunbat osoa eman genuen lehiatzen eta sailkatuen hurrengo egunean jokatu zituzten finalaurrekoak eta finalak. Joan ginen ikustera. Autobusa etorri zen gure bila 07:30ean horretarako.

Nola hasi zinen petankan jokatzen?

Pandemiaren ondorioz. Topasen geunden eta martxoaren 9an itzuli nintzen. Gero ezin izan ginen inora joan eta ez genekien zer egin. Ezin genuen Salamancara joan ere. Hortaz, lagun batzuen artean geratu ginen petankan jolasteko, nahiz eta ideiarik ez izan.

Azkenean Salamancako neska bat gurekin jarri zen harremanetan eta nola jolastu irakatsi zigun. Nik uste nuen nagusien jokoa zela hau, baina harrituta geratu naiz, jende gazte askok ere praktikatzen baitu.

Etorri zen, irakatsi zigun eta arratsaldero hasi ginen petankan jolasten. Neska berak proposatu zigun bere klubera batzeko, baina nik esan nion ez nuela ideiarik, baina berak erantzun zidan ikasteko modurik onena jolastea dela eta baiezkoa eman genion. Orain astebururo jokatzen dugu eta ez dugu atsedenaldirik. Asteburu batean Zamoran, bestea Rio Lobon...

Zer da gehien gogoko duzuna kirolari dagokionez?

Lehenik eta behin, kirola bera. Ni apurtzailea eta asmatzailea naiz eta oso ondo pasatzen dut bola jaurtitzen, baina gogoko dut baita ere nola harremantzen garen jendearekin. Lagunak egiten dituzu nonahi. Esaterako, Zamorara jokatzera joateko gonbidapena egin digute berriro.

Horrez gain, gero eta gehiago ikasten duzu petankari buruz; arauak, jokoa...

> **“Nik uste nuen petanka nagusien jokoa zela, baina jende gazte ugarik praktikatzen du”**

Petankan jokatu baino lehen ez nuen inoiz kirolik egin.

Nola heldu zinen txapeldun izatera?

Txapelketa guztietara joaten gara eta izena eman genuen klubeko emakumezko guztiok. 3 alde batetik eta beste 3 bestetik. Gure asmoa zen jokatzea eta ondo pasatzea, baina jolastu eta gero, bazkaltzen ari ginela, etorri ziren antolatzaileak eta esan ziguten: “Dori, Isa eta Paloma, Gaztela eta Leongo txapeldunak”.

Erotu ginen, eta adierazi ziguten ere Espainiako Txapelketa jokatzera joan behar ginela. Ez zen nire taldekideen lehenengo aldia eta bazekiten nola antolatzen zen dena eta abar.

Errepikatu nahi dudanez, egunero entrenatzen gara hemen, Topasen, eta Laudiora itzultzen garenean, urriaren amaieran, Etxebarrira joango gara, herrian ez baitago petanka pistarik.

Oso motibatua nago, irrikan nago arratsaldea heltzeko entrenatzera joateko. Topasen zenbait jenderekin jokatzen dugu senarrak eta biok, baina zenbait arratsaldetan Salamancara joaten gara, eta gu bezala federatuak daudenekin jolasten dugu. Federatua egon gabe ezin duzu txapelketetan partehartu.

Neguan goizago iluntzen du, 15:00ak aldera joaten gara jolastera. Egunero bi edo hiru.

herriko plaza

Eritz

6 urte bete berri, Zorionak Eritz Adin berri hau goza dezazula aunitz! Muxu pila!

Etxekoak

Oihana

Zorionakk sister ondo pasa ta disfrutau ondoo

Zure "bro"

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Urriaren 20an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

ERRAZA

			7			2		
	4		2		9		5	
	8				6			
	3		6				8	7
	2		9	8				
6					5		3	2
2	6		5			4		8
5					4	3	7	
			3			5		

ZAILA

		2			5	8	3	
7				2				
							4	
		1	2		7			
						9		
	8		1		3	4		
	9		8					
6				5				8
	3		7					6

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Zozketa

Artisau garagardo sorta baten zozketa egingo du Aiaraldea Komunikabideak

Artisau garagardo sorta baten zozketan parte hartzeko aukera. Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** urriak 15, 12:00etan.

KOKORIKO

BALIABIDE GUNEA



EUSKAL ENCODINGS

Eeuskarazko film eta telesailen sareko biltegia da,. auzolanean elikatzen den komunitatea. Euskarazko film eta telesailak biltzeaz gain, erdarazkoak euskaratzen ditu. Euskarazko ikus- entzunezkoen biltegi honetan, 1.500 film baino gehiago daude ikusgai webgunean. Denak euskaraz eta dohainik.

ARASAAC

Piktograma, eskematikoki, benetako objektu, ekintza edota errealitate bat irudikatzen duen irudi/zeinu grafikoa da. SAAC-ak ahozko hizkuntza ez diren adierazteko modu ezberdinak dira. Helburua, adierazpen maila handitzea eta komunikazio zailtasunak konpentsatzea da. Sinbolo sistema anitzak, grafikoak zein zeinu bidezkoak erabiltzen dituzte. Hauen biltegia eta baliabide gehiago (euskaraz), sarean eskuragarri www.arasaac.org webgunean.

JOLAS GUNEA

FAMILIAN JOLASEAN

LEKUA: Faktoria - Laudio (Araba)

AZALPENA: Urriko lehenengo larunbatean, eskualdeko hainbat familia Faktoriara gerturatu ziren. Bertan, giro gozoan jolasteko eta esperimentatzeko aukera izan genuen. Reggio Emilia filosofiatik datorren argiaren pedagogia izan genuen hizpide. Zentzumenekin jolastu genuen, itzal jolasekin, argia eta kolorea, ...

Filosofia honen hiru oinarriak ardatz izan genituen: haurra protagonista, heldua bidelaguna eta espazioa jolaserako eragilea. Familian jolasteko beste modu bat, haurren jolasen parte aktibo izan gaitezen, gurekin jolastu nahi?

Hurrengo hitzordua: azaroak 6, larunbata goizeko 11:00etan. Ez galdu aukera!

WONDER PONDER

Adin guztietarako ikus- filosofia proiektua da. Irakurle txiki zein handiak filosofiara hurbilduko ditu modu dibertigarri eta erakargarrian. Pentsamendu kritiko eta independentearen garapena eta mapa filosofiko propioa eraikitzea erraztea du helburu.

Wonder Ponder kutxetan, liburu- jokoak eskaintzen dira, gai filosofikoen inguruan pentsatu eta hitz egiteko. Zenbait irudi- egoera bitxi eta jakin- nahia eragiten duten hainbat galderak osaturiko ikus- mapetatik abiatuta, hausnarketara eta elkarrizketara gonbidatzen gaituzte.

Bakarka zein taldean erabiltzeko, familian, hezkuntza formalean zein ez- formalean, irakurtzeko eta pentsatzeko baliabideak dira.

Aurten, 2021.urtean, Ttartalo argitaletxeak argitaratu du euskarazko edizioa. Bi dira euskaratu dituzten izenburuak: *Mundu krudela* (krudelkeriaren inguruan) eta *Ni pertsona* (nortasunari eta pertsonen eta roboten arteko ezberdintasunei buruz). Honekin batera, doako bi koadernotxo euskaratu dituzte: eskola eta heriotzaren ingurukoak.

KOKORIKO

KOKORIKO

HEZKUNTZA FAKTORIA

Derrigorrezko harremanik ez

*Kalean oinez zoazela, herri bateko kale ezagun batean paseoan lasai, ezezagun batek burua ukitzen dizu polita hitz artean... Aurrera jarraitzen duzu eta ezezagun batek eskutik heltzen dizu etorri nire etxera hitz artean ... aurrera jarraitzen duzu eta ezezagun batek ogi puzka eskaintzen dizu zeliakoa zarela jakingo ote du?... Aurrera jarraitzen duzu eta ezagun batek ipurdian koska egiten dizu norena da ipurdi gozo hori hitz artean ... aurrera jarraitzen duzu eta ezezagun batek besotan hartu eta astintzen zaitu ... Aurrera jarraitzen duzu eta ezagun batek kilimak egiten dizkizu arnasik gabe geratu arte ... Aurrera jarraitzen duzu eta ezagun batek negar egiten duzunean ze itsusia zaren esaten dizu... Aurrera jarraitzen duzu eta ezezagun batek ilea oso luze duzula eta mozteko esaten dizu... Aurrera jarraitzen duzu eta... Aste honetan Nahia Alkortak guraso.eus atarian argitaratutako "Sarrera debekatua: beltzei, homosexualei, emakumeei ... haurrei" zutabea irakurtzean, aspaldi buruan bueltaka nituen egoerak etorri zaizkit burura. Azken urteotan, hausnarketa sakona ematen ari da indarkeria matxistaren inguruan, gero eta kontzientzia handiagoa izaten ari gara indarkeria kolpeetatik haratago doala, eta ezezagunek, gertuko pertsonek, gure ezagunek, gure senideek, gure lagunek eragin ahal dutela. Askok ez daukagu zalantzarik eta argi identifikatzen ditugu eguneroko indarkeria horiek. Paseoan zihoana *emakume bat dela esaten badizut, ziur aski zuetariko askok argi izango duzue hori guztia jasan ezina dela. Baina, paseoan zihoana bi urteko haur bat dela azaltzen badizut, berdina pentsatuko zenuke? Zer aldatzen da?*

Sarea

Arrain honek mugimendu jakin batzuk egin behar ditu laukiz lauki, sarean harrapatuta ez gelditzeko: hiru aurrera, bi behera, hiru aurrera, bi behera... horrela etengabe joan beharra dauka, irteerara iritsi arte. Baina nondik hasiko da? Zein zirrikitutatik joan beharko du? Lau dituzu aukeran.



Sudokua

Bai, haserre dago, baina lasai, berehala ahaztuko zaio. Bete ezazu sudokua, ESKOLA hitza osatzen duten hizkien bidez (E, S, K,O, L eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

		K	A		L
			O		
E				L	
	K				O
				E	A
A		E	L		K

Zaku lasterketa

Lehen iruditik bigarrenera bospasei segundoko aldea besterik ez dago, baina tarte horretan gauza asko aldatu dira, ezta? Horrez gain, elementu bat desagertu da eta elementu berri bat ere agertu da. Ikusten al dituzu?

SOLUZIOAK



Kontra

Aiaraldetik mundura

Bjørn Erik Pedersen

IOSU VAQUERIZO

JAIOTERRIA
LAUDIO (1981)

BIZILEKUA
OSLO (NORVEGIA)

BIDAIAREN ZERGATIA
SORMEN JARDUERA GARATZEA ZINEMAGINTZAN ETA MUSIKAN

“Osloko publikoa oso ohituta dago sormen abangoardistara”

Oslon bizi zara orain, nola bukatu duzu Norvegian? Norvegiak badauzka dirulaguntza ugari arteari dagokionez. Nik harreman pilo bat nuen hor eta aldaketa gura nuen. Hori baino lehen bolada batean bizi izan nintzen Ingalaterran. Jadanik 20 urte eman ditut atzerrian.

Zer nolako bizimodua duzu Oslon?

Nagusiki zinemara eta musikara bideratzen dut nire denbora. Oslok aukera asko ematen ditu, arte galeria mordoa eta musika esperimentaleko giro indartsua. Ingalaterran, dena den, musika giro anitzagoa eta interesgarriagoa dago.

Nola hasi zinen musikan zein zineman? Zein erreferente dituzu?

Nire familiak musika tradizio handia dauka. Aita musikaria zen eta musika klasikoa sortu zuen, baita esperimentala ere eta Bilboko rock taldeetan jotzen zuen 1970eko hamarkadan. Nire aitona eta bi lehengusu ere musikariak dira eta hainbat taldetan jo dute.

Nire aldetik, zenbait disko kaleratu ditut Ggghost Townnn (garage rock), Obsolete Models (post-punk), eta Soaps (synthpop/shoegaze) taldeekin eta nire kabuz Iosu Vakerizzo (esperimentala) norvegiar eta ingeles disketxe txikiekin; Number4door, EtchWear eta Party´s Over. Zinemari begira, bada zerbait txikia nintzenetik egin nahi nuena. Horregatik ikasi nuen Zinema Zuzendaritza Ingalaterrako Unibertsitatean. Oso gogoko dut 1960eko hamarkadako zinema europarra. Itxuraz, pelikula zaharrak izan daitezke, baina garai horretako film batzuk gaur egiten diren gehienak baino originalagoak dira. Godard, Bergman, Chytilova, Antonioni, Tarkovsky, Paradjanov, Pasolini, Makavejev, Teshigahara... zinemari buruz ari naiz. Zinema garaikideari dagokionez, nire gogokoenak Mandico eta Eggers dira.

Zure azkenengo filma *Life in the XXI century* izan da, zer nolako ibilbidea egin du?

Nire filmak hasi berri du bere ibilbidea jaialdietan. Wasteland Film Festivalen aurkeztu berri da, Californian, eta hilabete gutxi barru Sans Raisonen egongo da, Parisen. Jaialdi gehiagoren interesaren zain gaude. 41 minutuko filma da eta Norvegian dago grabatuta. Bularrean tentakulua duen gizonezko bati buruzkoa da, eta bizitza modernoaren alde arrotzenak jorratzen ditu. Film surrealista samarra da eta Txekiako 60ko hamarkadako eragina du, David Cronenberg eta John Watersen ukituekin.

Zein musika genero lantzen dituzu?

Musikaalternatibougariegindut: rock garage, post-punk, shoegaze, dreampop, esperimentala, soinu bandak... Horrelako kontuak. Osloko publikoa oso ohituta dago sormen abangoardistara, musikan, zein artean eta zineman.

Nire kontzertuek beti izan dute harrera beroa. Norvegian, Suedian, Danimarkan, Ingalaterran edota Irlandan jo dut, nahikoa mugitzen naiz eta nire musika gutxiengoarentzat bada ere, beti topatzen ditut entzuleak.

NORVEGIA



DESKRIBAPENA
Europa iparraldeko estatu burujabea da, eta 1814ko maiatzaren 16an onartutako konstituzioaren arabera, Norvegia monarkia konstituzionala da. Herrialde Eskandinaviarra da, historiaz eta kulturaz. Oslo da Norvegiako hiriburua, eta guztira 647.676 biztanle bizi dira bertan.

AZALERA
323.802 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
5,3 milioi biztanle.

HIZKUNTZA
Norvegiera eta samiera .

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Eider Solatxi, Aitor Fernandez de Pinedo, Koldo Rodriguez, Jon Catalan, Christian Alemany, Aitziber Alava, Endika Arribas, Jabi Asurmendi, Iñaki larrakoetxea, Elixarraitz Mendiguren, Gemma Corbella, Lander Ria, Cristina Gonzalez, Eunate Molinuevo, Andima Landaluze, Xabi Ugalde eta Alberto Martinez

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko
URDUÑA ORDUÑA
Artziniegako Udala
ausolan
ARRANKUDIAGA ZOLLO UDALA
Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala
Arakaldo
OKONDOKO UDALA
LAUDIO UDALA AYUNTAMIENTO DE LLODIO
AMURRIO
G! Graf!k Tellería 2, Laudio (Araba) 94 672 65 43// info@grafiksarea.com
Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA